

ttüpi-ttapa

1996ko abuztuak 15 • 188. zenbakia

**Herriz Herri
Bestaz Besta**

FREKKURAN IBILI!



**BESTA
ZORIONTSUAK !!**

REGISTRO GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.300 ALE

REGISTRATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE

HERRIKO ETXEKO PLAZA, 1

31780 BERA

TFNOA: 63 11 88

FAXA: 63 12 91

Erredakziora: Joxemanuel Iri-

en. **Publizitatea:** Miren Kar-

e Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor

Arozena, Joxemanuel Irigoien.

Erredakzioaren zuzendaria: Amaia Goia.

Erredakzio taldea: Pello Ape-

txea, Juainas Paul, Kristina

San, Bittori Telletxea.

Erredakzioraileak: Joseba Azpiroz,

Aitor Arozena, Juana Mari

Ariz, Ainhoa Mutuberria, Iban

Ariz, Txema Aldabe, Pello

Apezetxea, Txema Urroz, Patxi

Apezetxea, Daniel Martirena,

Patxi Apezetxea, Josune Etxebeste,

Patxi Apezetxea, Joseba

Apezetxea, Alizia Olaizola, Margari

Apezetxea, Koro Irazoki, Mixel

Apezetxea, Jacqueline, Elixabet

Apezetxea, Garbiñe Maiz, Oskar

Apezetxea, Alberto Sansiñena,

Patxi Apezetxea, Aitor Arozena,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Patxi Apezetxea, Patxi Apezetxea,

Iraila arte

Urtero bezalatsu, abuztuarekin batera, iraila arte agurtzeko tenorea ailegatu zaigu.

Ale honetan, ohi denez, eskualdeko herrietako besta gehienetako egitarauak eskuratu dizkizuegu, hemen inguruan gelditzen zaretenentzat. Oporretan kanpora joan behar duzue, ongi pasatu eta ez galdu, iraila hasieratik berriro ere hamabosteroko zita izanen baituzue **ttipi-ttaparekin**.

Paper gaineko **ttipi-ttapa** berrikuntza batzuk izanen baditu, zer erranik ez aldizkariaren edizio elektronikoaz. Irailetik aitzinera **ttipi-ttapa**ren hamar orrialde mundu mailako Internet sarearen bidez irakurri, ikusi eta inprimatu ahal izanen dira. Honako hauek dira helbide elektronikoak:

- Web orrialdea: www.encomix.es/ttapi-ttapa
- Posta elektronikoa: ttipi@encomix.es.

Beraz, paper gainean nahiz ordenagailuan, **ttipi-ttapa** leitu! Ongi pasa eta laister arte!

ttipi-ttapa

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



Aldizkari honek Nafarroako gobernuaren laguntza jasotzen du

IRAKURLEAK MINTZO

Tradizioa, emakumeentzat traizioa

Gaur, aspaldiko partez Baztandarren Biltzarrean egon naiz eta bazkal ondoren, dantzatzeko tenorean "mutil dantzak" dantzatzeko saiatu naiz baina txistulariak hiru aldiz abisatu ondoren dantza gelditu du. Behar bada aurten Irungo Alardearen historiarekin gaia pil-pilean dago eta horregatik lehengo garaietan baino gehiago mindu naiz, bertalde txistulari gaztearengandik ez nuen honelakorik espero.

Ez ditut inondikan ere Irungo Alardea eta gure herriko dantzak konparatu nahi. Ezta guttiagorik ere.

Bertzalde ez dut garbi Mutil Dantzak dantzatu behar ditudan edo ez, baina gaurkoaren ondoren etorri zaizkidan burutazioak adierazi nahi ditut:

Ni dantzaria izana naiz eta garai haietan ere dantza ikusgarrienak mutilentzat zirela ikusten genuen edota

neska-mutilentzat zirentan neskaren egitekoa pasasiboagoa zela. Gaur bazkal ondoren bertze dantzatu ditugu, «Muxikoak» eta «Zortzikoa» tartean, hauek neska mutilek nahasita, nik ez dut inolako ikerketarik egin baina dantza hauek sortzean mutilek bakarrik dantzatu zituztela baieztatu nuke.

«Mutil dantza» izena ditzuten dantza hoiek bestelako izena balute, «Pausoka» erraterako, gaur hori bera gertatuko al zen?

Zenbait herritan gertatzen ari den bezala gero eta mutil guttiago dago dantzatzeko, batzutan ez dira nahikoak, hor zeregin behar dugu, tradizioa galtzen utzi edo neskei dantza egitea proposatu?

Azkenerako koadroa margotuko dut: neska-mutilak, gizon-andreak, ... elkarrekin besta egiten ari dira eta dantzaldia hasten da: kasu! hau ez da denentzako, lehenengo dantza mutilentzako bakarrik! eta mikrofonoak aditzen diren lehe-

nengo solasak: **Emakumeak kanpora** (koadroari kolorea zeuek jarri).

MARISOL TABERNA



Igantzioko Udala, agur 'erdi

Eskutitz honen bidez atzo igerilekuetan gertatutakoagatik kexa bat bidali nahi dizuegu. Arantzako barnetegikideak igerilekuetara ailegatutakoan sarrerak saltzen ari zen neskarekin euskaraz egiten hasi ginen. Eta izugarri harrituta geratu ginen "Hablame en castellano, no se euskera" entzutean. Beharbada ez geunden Igantzin, Brivescan baik. Baina igerilekuetatik ikusten zen paisaia ez zen Kastillakoa.

"Txikia ala haundia", "Hirurehun edo ehun eta berrogeita hamar pezeta" esateko ez da EGA eduki beharrik, hemengo jendea ulertzearen nahia baizik.

Hala ere belarrean geundenean gure inguruko jendea erderaz entzutean gehienak kanpotarrak zirelakoan geunden. Oraindik baduzue altxor eder bat, baina bizi zareten artean ez baduzue zaintzen eta babesten, galdu egingo duzue.

Esker anitz gure eskutitza irakurtzeagatik eta zuen langileei euskera jakitea eskatuko bazeniete ez lirateke horrelako gauzarik gertatuko.

Besterik gabe, kontutan hartuko duzuelakoan:

ARANTZAKO AEK BARNETEGIA



Ur eskasia?

ur-mozketak Beran

Orain dela urte batzuk egin ziren obren ondoren ezinezkoa iduritzen zitzaigun ur mozketarik gertatzen ahal zirela Berako herrian. Jende guziak jakin beharko luke nola biltzen den ura eta no-

OHARRA:

*Eritzi ezbedinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAren zerbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea.*



• DROGERIA • LURRINGEGIA • OPARIAK •

Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40

BERA



BLANCO ANAIK, S.L.

MARMOL eta GRANITOAK

Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerria

BERA - Kanttonberri 4, ☎ 631052

IRUN-(943) 631084 • LEZO(943) 529390

PIKABEA
pinturak
Molinero drogerian galdetu

Etxe barneko hezetan eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • **BERA**

IRAKURLEAK MINTZO

la funtzionatzen duen uraren etorrerak (Herriko Etxeari dagokio argitzea). Jendeak jakin beharko luke deposito bat ez dela urtegi bat. Deposito bat ura neurtzeko eta erregulatzeko tresna bat bertzerik ez dela.

Berako herrian bi deposito ditugu, bat Zalainen (milioi litrokoa) eta Suspelan bertzea (bi milioiokoa). Normalean 250 litro ur dagokio pertsona bakoitzari eta kopuru horrekin nahikoa izan beharko luke. Kontuak egin ondoren erraten ahal da Beran 750.000 litro gastatzen direla egunero. Depositoetan ez bada urarik sartzen, lau eguneko erreserba bakarra geldituko da.

laz urte idorra izan zelakoz ur guttiago sartu zen depositoetan eta bapatean zas... urarik gabe gelditu ginen. Jendea erantzunen bila zebilen:

Nolatan ez da bandorik jarri bazterrak ez bustitzeko aginduz?

Trukenekobordako bonba zergatik ez zen martxan paratu?

Zergatik ez zen martxan jarri Kalbarioko depositoa? Zergatik ez zen ekarri ura Funberatik?

Normalean beti erabili diren ur iturriak ez ziren martxan jarri, urarik gabe gelditu ginenean.

Uria bota zuen eta Lurdesko Amabirgina agertu baltzaion bezala gertatu zitzaion Alkate Jaunari eta bere arazoak konpondu egin ziren. Egun batzuetarako besterik ez, berriz ere gauza bera gertatu zelakoz eta berriz ere ez zirelako martxan jarri ohizko irtenbideak.

Alkateak badaki behar ezker ere Intzolako erreka ere ibiltzen ahal dela, baina ez ziren saiatu ere.

Oraingoan behinpin denak gelditu ginen urarik gabe, ez laugarren pisuetan bizi direnak bakarrik.

Beratar guzion arazoa bihurtu da eta aurten ere horre-

la gertatzeko arriskua ote?

BERAKO HERRI BATASUNA



Gure

Besta

Gure

Kutxa

CAJA RURAL
.DE NAVARRA

Larunbata 10:

5etan IV. mendi-bizikleta bilkura Altxata elkarteak eta Gazte Taldeak antolatua.

Asteazkena 14:

8etan Herriko Etxetik airtuko den altxaferuak, besten hasiera adieraziko du. Bertan parte hartuko duten guzientzat txanpaina izanen da eta umeendako, berriz, goxokiak. Herriko txistulariak, trikitalariak, txaranga, buruhaundi eta kankailuak karrikaz karrika ibiliko dira besta egunetako lehen saioa eginez. **9,30etan** herri afaria. **12etatik 3,30etara** LUHARTS taldea.

Ortzeguna 15:

AndreMari Eguna

10,30etan argisoinuak txistulari, txaranga, buruhaundi eta kankailuekin. **11,30etan** Meza Nagusia. **12,30etan** herriko dantza taldeak bere saioa eskeiniko du herriko plazan. Aurten ere mutil helduek dantzatuko dute. **6,30etan** herri kirolak: Nafarroako I. mailako pro-



ba konbinatuen txapelketa (Basaburua, Araitz-Betelu eta Arraioz). **7,30etan** bertso saioa: Lizaso, Egaña eta Peñagarikano gai librean. **8,30etatik 10ak arte eta 12etatik 3etara** dantzaldia MAIXA eta ITZIARekin.

Ortzirala 16:

Haurren Eguna

11etatik 1,30etara eta 3etatik 6etara Haizezko Gaztelua, Karts, Trena eta Zezen mekanikoa. **2etan** Asau ttiki. **6etan** berendua eta haurrendako jokoa. **6etan** zaldi hezitze ikustaldia. Arratsaldez eta

gauetz URRATS taldea.

Larunbata 17

Jubilatuen Eguna

11,30etan argisoinuak buruhaundi eta kankailuekin. **12etan** Pilotari afizionatuen partiduak: Atxa-Urrutia, Leiza-Otxandorenaren kontra. **2etan** jubi-

latuen bazkaria Larraburuan. **5etan** emakumeen pala txapelketa. **6etan** IV. mus txapelketa bi mailatan: Gazteak (16 urte arte) eta Haundiak (17 urtetik goiti). Partiduak bi txikitara jokatu dira. **8,30etan** IV. Mus Txapelketako sari banatzea.

MADERAS

IRIGOYEN S A

EGURRAK:

- ZURGINDEGIRAKO
- ERAIKUNTZARAKO
- ENBALATUAK - PALET-AK

OIHAN ATERATZEAK

ZERRATEGIA

TAULAK EGITEKO TXAPA

Bulegoa: 948 / 63 71 33 • Legarrea, 14 • 31770 LESAKA
Zerrategia: 948 / 63 52 53 • Usategietako err. 1. Km • ETXALAR
Telefono mugikorra: 908. 97 88 38

ASADOR LA BASQUE

Besta on batzuk pasa itzazue

Tfnoa: 635153 • ETXALAR



© 635290
ETXALAR

**HERRIKO
OSTATUA**

Jatetxea

*Proba ezazu
gure ostruka
plater exotikoa*

1969ko Asau Eguneko erreportai bateko argazkiak dira hauek. Ordura arte Asau Eguna ezberdina izaten zen. Lagun kuadrilak bakoitza bere aldetik elkartzen ziren, besta ospatzera. 1969an, hain zuzen, sortu zuten gaur egun ezagutzen dugun Asau Egun jendetsua. Argazkietan, urte hartan bildu zen taldearen irudiak ageri dira, erraldoi eta musikarien laguntzarekin.

ARGAZKIAK: Fidel CRUZ-ek utziak



Arratsaldean eta gauetan dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

Igandea 18:

Asau Eguna

11,30etan kankailuak eta buruhandiak karriz karriz ibiliko dira. 12etan afizionatu mailako pilota partiduak: Urretabizkaia-Haritz, Otxoteko-Almadozen kontra. 2etan Asau ermitako zelaietan. Arratsaldean eta gauetan dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

Egunero Tantirumairu txaranga ibiliko da karriz karriz giroa alaitzen. Herriko trikitalariak ere ibiliko dira.

LANDABURUA

JANARIDENDA

Besta zoriontsuak opa dituzue denek

Tfnoa: 635047 • ETXALAR

zimeldi

ALTZARIGILEA

Neurrira egindako era guztietako mobleak

Sukaldeak, enpotratuak, liburutegiak, bainuak...

Obra gabeko ate korrederadun diren?

enpotratuak.


Edozein paretak balio du enpotratu bat jartzeko.

Ez da zulo berezirik behar.

Prezioak, sakel guzieren eskura!!

© 387017 • ETXALAR

LESAKAKO ZUBIA



Publitel

Promozio Bereziak

- Egutegiak
- Buzoiratzeak

**Gure asesorea deitu eta eskatu aurrekontua
Zure ideari forma ematen dugu iduri ona eman dezazun**

Eztegara Pasealekua, 26 - 2. • Tfnoa.: (948) 63 12 83 • BERA (Nafarroa)

Asteazkena 14:

9etan altxaferua Herriko Etxetik, bestei hasiera emateko. Segituan kalejira herriko akordeolari eta LAGUNAK txarangarekin. **12etatik 4etara** dantzaldia GAUBELA taldearekin. Ondoren LAGUNAK txaranga arituko da.


Ortzeguna 15

Amabirjinaren Eguna

10etan argisoinua herriko txistulari eta akordeolariekin. **11etan** meza nagusia. **12etan** herriko dantzarien emanaldia eta kalejira herriko akordeolari beteranoekin (Gregorio Ordoki, Modesto Ordoki, Salbador Madariaga, Fermin Leiza, Luziano Ordoki, Gregorio Mitxelena, Joakin Madariaga eta Miguel Mari Iparagirre).

1etan pilota partidua:

Agesta-Errandonea, Olaizola-Barriolaren kontra. **7etan** herriko plazan asto laisterketa, ahare apostuak, oilar jokoa, basurde harrapaketa. **7etatik** aitzinera LAGUNAK txaranga herrian barna. Arratsaldez eta gauez musika AMAIA eta KRISTINAREN taldearekin.



**ALBERGIA
JATETXEA**

© 634179
ARANTZA



**Pabloenea
Jatetxea**

Goiko karrika • © 634077
ARANTZA

BERABI Agentzia, S.L.



BERABI Tailerrak

- SALMENTA
- MEKANIKA
- ELEKTRIZITATEA
- KONPONKETAK OROHAR

Zalain industrialdea • © 631445 BERA

winterthur

Sociedad Suiza de Seguros

Zugandik gero eta hurbilago

Aseguroak

© 630601 • Faxa: 630805 • Legia I, BERA



Besten alde ofiziala garrantzitsua da. Hor daude herri guzietako egitarauetan ageri diren dantzariak, mezak, musika, haurrendako jokoak. Egitarauan ez da azaltzen, ordea, egun osoko eta, batez ere, gau parteko poteoa eta ostatuetakoa giroa. Hori ere bestak izaki!

Argazkiak: GOIKO eta Xabier Zugarramurdik utziak

Ortzirala 16

10etan kalejira herriko txistulari eta akordeolariekin. **11,30etan** Ekaitza elkarteak antolatutako herriko pilota txapelketako finalak (4 partidu). **1etan** bertsolariak frontoian; Murua eta Peñagarikano. LAGUNAK txarangak gi-

roa alaituko du herrian barna. **2etan** herri bazkaria eskoletan, bertsolari eta txarangarekin. Eguerdian eta arratsaldean, haurrentzat hain zezko gazteluak eta tren txutxua herriko plazan. **7,30etan** bertsolariak herriko plazan. **8etan**

Bidasoa hegaldi zentroa eta Amasain aire kirol elkartearen eskutik ala delata eta parapente erakusketa Mendieder eta Ekaitza mendietatik salto eginez (eguraldiak ez baluke lagunduko larunbat edo igandean eginen litzateke). **8etatik 10eta-**

ra eta **3etatik** aitzinera LAGUNAK txarangarekin dantzaldia plazan. **12etatik 3etara** GOZATEGI taldearekin dantzaldia plazan.

Larunbata 17:

10etan argisoinea txistulari eta akordeolariekin. **12etan** herriko trikitalari

gazteak arituko dira herriko plazan. **4etan** plater tiraketa Usua Ehiztari Elkarteak antolatua Meako zelaian. **7etan** lera zakurren erakusketa. Haurrentzat ibilaldiak. **8,30etan** pilota partidua: Asegarceko pilotari bat eta Rafa Errandonea, Asegarceko pilotari bat eta Ander Agestaren kontra. **10etan** Aterpeko aparkalekuan, Arantzako Gazte Asanbladak eta Aterpek antolaturik ARANTZA ROCK 96: Sutagar, EH Sukarra, Baldin Bada eta Etsaiak taldeak. **11,30etan** musika plazan AUKERAN taldearekin.

Igandea 18

10etan argisoinea txistulari eta akordeolariekin. **12etan** pilota partidua: Mariezkurrena-Okiñena, Mikelperizena-Iparagirren kontra. **1etan** LAGUNAK txaranga herrian barna. **7etan** herri kirolak. Harrijasotzaileen Euskadiko Federazioko Kopa. Arratsalde eta gauetz musika AUKERAN taldearekin eta LAGUNAK txaranga kalejiran ibiliko da beste akabera emateko.

OSINA JANARIDENDA

Besta ederrak pasa itzazue!!

Tfnoa: 63 41 88 • ARANTZA

ARANTZA ZYRGINDEGIA

Jose Miquel Errandonea Ordoki

Era guztietako zurgin lanak

Osiña Auzoa • ☎ 634068 • ARANTZA

ZALAIN MOTOR



Zalain Auzoa • ☎ 631157 • BERA

FORD ZERBITZU OFIZIALA

- Erakusketa eta Salmenta
- Bigarren eskuko autoetan aukera zabala eta garantia osoarekin
- Mekanika • Karrozeria • Elektrizitatea
- GRUA ZERBITZUA 24 ordutan



Lezeetako zikiro jatean hainbat eta hainbat gizonetako biltzen ziren mende hasierako irudietan ageri denez. Gaur egun, herritarrez gain, kanpotar aunitz izanen ditugu. Hori bai, gizonak eta emakumeak elgarrekin...

Asteazkena 14:
10,30etan besta hasierako suziria eta ezkil joldia. Ondoren, eskea etxez etxe. **2etan** bazkaria Herriko Etxean. **4etan** haurren jokoak: Gaztelu haizatuak, ohatze elastikoak, magia... **7etan** txo-


kolatada haurrentzat. **11etan** piperrada plazan, dohainik nahi duen guziarentzat. **Arratsalde eta arratsean** dantzaldia URRATS taldearekin.

Ortzeguna 15:
11,30etan meza nagu-

sia. Ondoren, aperitifa Herburuko txarangarekin. Gero, Donibane-Lohitzuneko Begirale dantza taldea eta makilariak. **5etan** pilota partiduak. **7etan** makilariak eta dantzariak. **10etan** rock kontzertua MOKO-

KA taldearekin. **Arratsalde eta arratsean** dantzaldia IRRINTZINA taldearekin.

Ortzirala 16:
10etan plater tiraketa. **12etan** Gorriti eta bere animalien ikuskizuna: ba-



ALTZATENEA JATETXEA

Besta ederrak pasa!!

Tfnoa: 59 91 87 - ZUGARRAMURDI

F.J. ETXABE Tailerrak

➔ Autoen konponketa

Besta on batzuk pasa!!!

© 599038 • ZUGARRAMURDI

AYLA ARGAZKILARITZA

- Estudioa
- Erreportaiak
- Ezkontzak
- Argazki materiala
- Fotokopiak
- Bideoa
- Markoak



Bixente Taberna
 Bidasoa karrika, 8
BERA © 630075

ANSALAS OSTATUA




**HARATEGIA
 JANARIDENDA**

Besta ederrak pasa

© 59 90 82
 ZUGARRAMURDI

Agorrilaren 14tik 18ra



Zikiro jatea prestatzeko laguntzaile onak izatea nahitaezkoa da. Haurrek ere ez dute aspertzeko denborik izaten, batez ere pottokekin jostatzeko aukera badute. Donibane Lohitzuneko Begirale dantza taldeak, makilariak eta Mutxikoek beteko dituzte aurtengo dantza saioak



surdeak, zakurrak aretzeak, ahare eta oilar jokoak eta pottokak haurrentzat. **5etan** ahate jokoak, bertsolariak eta Urruñako txarangak alaiturik. **7etan** antzerkia Taun-Taun taldearekin. **Arratsalde eta arratsean** dantzaldia XITOAk taldearekin.

Larunbata 17:
11etatik 1etara motoak. **1etan** aperitifa Herburuko txarangarekin. **5etan** aizkolaria eta bertsolariak. **9etan** kantaldia MAIXA eta ITZIARekin. **Arratsalde eta arratsean** dantzaldia ZAPOZAIN taldearekin.

Igandea 18:
11etan aperitifa Neka ezinak eta Herburuko txarangarekin eta Baigorriko gaiteroekin. **2etan** zikiro jatea lezean. **6etan** larra dantza eta Mutxikoak plazan. **10etatik 12etara** Tapia ta Leturia Band. **Arratsalde eta arratsean** dantzaldia URRATS taldearekin.

ERREFETAK
Irailaren 1ean
2etan zikiro-jatea Baigorriko gaiteroekin. **7etan** GOZATEGI taldea. Ondoren dantzaldia URRATS taldearekin.

ARGAZKIAK: MENA, MARGARI eta KOROK utziak



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

HERRIKO ETXeko EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19
64130 SARA



DANBORIENA

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

© 453403 - ARIZKUN

AKELARRE elkarteak
besta zoriontsuak
opa dizkizue zugarramurdiar
eta bisitari guziei

AZKETA
frontoia

ostatua-grillada

Bokadillok
eta pintxoak

Frontoia
© 599022
ZUGARRAMURDI



Joan den urteko Amabirjinaren egunean burutu zen Artzain-zakur txapelketaren hogeigarren ediziora hainbat jende hurbildu zen. Patxi Etxeberriari omenaldia egin zitzaien eta oroigarria Koldo Goienetxek eman zion, Patxi txapelketara laguntzen kilometro aunitz egin baititu.

Asteazkena 14:
8etan suziarik eta ezkil-jotzea. 9etan Baztan zopak Joxe Angelen animaoarekin (Txartelak Urdazubi, Elizondo, Erratzu eta Amaiurren salgai). 12,30etatik 5etara gaupasa BASAJAUN taldearekin. 6etan zinger ja-

tea Monumentoan.

Ortzeguna 15:
Amabirjin Egune
11etan Meza Nagusia. Ondoren IV. Baztan-Urdazubi-Zugarramurdiko Gasna Lehiaketa. 12etan herriko haurren dantza-saioa eta mutil-dantzak.

12,30etan hameketakoa kanpoan bizi diren herritarrentzat. 4,30etan artzain zakurren desfilea. 5etan XXI. Artzain-zakur txapelketa (Bernardo Lakosteren exhibizioa). Akitzerakoan, gasna lehiaketaren sarien banaketa eta hauen subas-

ta egingen da. 7etan Amaiurko sokatira taldeari omenaldia. 8,30etatik 10,30etara dantzaldia HARITZA taldearekin. 10etan mutil-dantzak. 11etan sokamuturra. 12etatik 3,30etara dantzaldia HARITZA taldearekin.

Ortzilarea 16:
Haurren Egune
12,30etan haurren III. pilota txapelketaren finala. 4,30etan haur jokoak. 6etan Popi Zatrarako pailazoak (Nafarroako Gobernua eta Baztango Balleko Etxearen laguntzarekin). 8etatik 10etara

MASAIA eta BIZKORTZE ARIKETAK

Txomin Irazoki (fisioterapeuta)

MASAIA:

- Minerako eta zirkulaziorako
- Zerbikal edo garondokoa eta lunbarrak
- Hanka eta besoetan

BIZKORTZE ARIKETAK:

- Trafiko eta lan istripuak
- Kirol lesioak
- Belaun eta kaderako protesiak

Tel. 631391 - 908.576388

Eztegara 20, behea • **BERA**

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

TXIRULA
Albistur, 39-K • ☎ 627542 • **LESAKA**
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

ARROZ BERRI



SAME
TRAKTOREAK

POTENTZIA
ETA
TEKNOLOGIA

EUROPAN SARITUENAK, ORAIN HEMEN ERE

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 581021 • **IRURITA**

Abuztuaren 14tik 18ra



dantzaldia GAUBELA taldearekin. **10etan** mutil-dantzak. **10,30etan** herri afaria. **11etan** sokamuturra. **12etatik 3,30etara** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Larunbata 17

4,30etan Baztango III. Mendi Bizikleta bilgura (Nafarroako Gobernua eta Balleko Etxearen laguntzarekin). **8etatik 10etara** dantzaldia GAUBELA taldearekin. **10etan** mutil-dantzak. **11etan** sokamuturra. **12etatik 5etara** gau-pasa GAUBELA taldearekin. **6etan** zingerjatea Monumentoan.

Igandea 18

Herritarren Egune
2etan zikiro jatea Joxe Anjelekin. **8etatik 10etara** dantzaldia IÑAZKI taldearekin. **10etan** mutil-dantzak. **11etan** sokamuturra. **12etatik 3etara** dantzaldia IÑAZKI taldearekin eta besten bukarea.



Goiko argazkian Patxi Etxeberria bere zakur batekin eta bertze partaideekin batera, atsedean une batean. Ezkerraldean, amaiurtarrak zikirojatean ateratako erretratoan.

ARGAZKIAK: IXABEL ALEMANek UTZIAK

GOZOTEGI-JAZONE

Altzate, 19 • 630786 • BERA

F. MARITORENA

Mendi eta lorategi garbiketak

Tfnoa.: (948) 63 11 99 - BERA

GANIX
Tailerrak

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

Iturlandeta 9 • 630669 • BERA

AMAIUR

ALTZARIAK

Doneztebeko sarreran • Tfnoa: 45 04 00

*Zure etxeko sukalde eta bainuak
Profesionalen eskutan jarri
Etorri eta konparatu kalitatea eta prezioa*

BESTAK UMORE ONEAN PASA



Asteazkena 14:

6etan txupinazoa eta ezkil jotzea. Segidan, akordeoi kontzertua elizan. **9,30etan** Baztan zopak. **12etan** dantzaldia ONOFREren eskutik.

Ortzeguna 15:

Amabirgin Eguna

9etan argisooinua gaiteroekin. **11etan** Meza Nagusia. Ondotik herriko dantza taldea plazan. Ondoren, hameketako herrikoia. **6etan XVI.** gomazko pala txapelketako erdifinal eta finalak. Arratsaldean eta gauetan dantzaldia GAUBELA taldearekin.



Ortzirala 16:

Gazteen Eguna

9etan argi soinuak. **2etan** gazteen bazkaria zentralan. **6,30etan** bizi-kross Baztan erreka barna. Arratsaldean eta gauetan dantzaldia ONOFREren.

Bazkalondoko giroa ez da nolana hikoia izaten **Ornoz-Mugairiko** bestetan. Aurren, gainera, bizi-krossean parte hartzeko aukera izanen dute.

Ezkerreko argazkian pilota txapelketako finalistak eta hirugarren eta laugarren posturako aritu zirenak.



ARGAZKIAK: Gurutze eta Jasonek utziak

Larunbata 17:

Haurren Eguna

9etan argi soinuak. **4etan** lera-zakur laisterketa. **5,30etan** ehizi-ibilaldia herrikoentzat. Arratsaldean

Miren Gortari Sein
© 592310
ORNOZ-MUGAIRI

MIREN
ileapaindegia
Ordua eska ezazu

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORNOZ-MUGAIRI

OSKORRI
liburudenda

- Artisautza produktoak
- Liburuak-prentsa-mapak-gidak
- Argazkilaritza materiala
- Loteria-Bonoloto-Primitiva-Kinielak

Ogi freskua egunero
ORNOZ-MUGAIRI • © 592245


Elizatzte
ERLOJUTEGI
BITXITEGIA
Nafarrentzat prezio bereziak
Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN

ARROPA DENDA

FANTXIKE
MERCERIA
JAIME URRUTIA, 24
TFNO. 586312
ELIZONDO

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS

Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia



LANDA TURISMOA

Teoria eta praktika

elkarrengandik urruntzen ari dira

2. LANDA TURISMOA: Amaiurko Juan Martin Aleman Baztan-Bidasoako Landa Etxeen Elkarteko buru da. Elkarrizketan esplikatzen duenez, Landa Turismoa hasieran pentsatu ziren helburutik urrundu egin da, eta guzi horretatik kaltetuenak baserritarrek dira.

4-5-6. NEKAZARITZA-ABELTZAINZTA: Esne behiaren sektorea eta Janari Ekologikoak. Berri laburrak.

7. OPORRETARAKO GOMENDIOAK:

IRATXE Kontsumitzaileen elkarteko Mikel Bezunarteak, bidai agentzia eta garraio zerbitzuekin arazorik ez izateko gomendioak eskeintzen ditu.

8. LITERATUR LEHIAKETAK: Iruñeko udalak XI. Literatu Lehiaketa Egile Berrientzat ezagutarazi du.

9. NAFARROAKO TRIKITILARIEN III. TXAPELKETA: Eskualdeko bikote ugarik parte hartuko dute. Suerte!

Juan Martin ALEMAN, Baztan-Bidasoako Landa Etxeen Elkarteko presidentea

«Baserriko ekonomiaren lagungarri gisa planteatu zen, eta praktikan, ez da horrela»

Elkarrizketa hau ARDATZA aldizkariaren 207. zenbakian argitaratu zen, eta duen interesagatik, LURRAN ere argitaratzea iduritu zaigu egokiena.


Juan Martinek dioenez, Landa Turismoa hasieran pentsatu ziren helburutik urrundu egin da. Baserriko ekonomiaren lagungarri gisa planteatu zena, praktikan ez da horrela suertatzen ari. Hori dela eta, zuzenena, hemendik aitzin dirulaguntzak nornahiri eman beharrean egitan behar dituztenei ematea dela uste du.

Nor da Juan Martin Aleman?

Amaiurko baserritarra, hori sinpleki. Haragitako behiak, ardiak eta xerri batzuk dituen. Eta orain Baztan-Bidasoako Landa Etxeen presidentea.

Nola ulertzen duzu lan da turismoa?

Hasieratik entenditu genuen nekazal turismoak herri tikiaketa baserritarren errenta iturriaren ingreso konplementarioa behar zuela izan. Eta aldiberean, turismoaren bitartez gure lekukotasuna, gure kultura, ohiturak eta historia agertzea ongi ikusten genuen. Gero, praktikan gertatu dena bertze istorio bat da. Administrazioetik gauza zabalik utzi da inongo limitazioerik gabe, eta azkenean



Landa Turismoa hasieran planteatu ziren helburutik urrundu egin da.

bi turismo eskaintza daude. Bat honen beharrean gaudenok eskaintzen duguna, eta bertzea, leku gehiagotan egi-

ten dena eta indarreko jendeak bere inbertsioak bideratzeko erabiltzen duena.

Bertako jendearen ekonomia

«Bi turismo eskaintza daude.

Bat honen beharrean gaudenok

eskaintzen duguna, eta bertzea,

leku gehiagotan egiten dena

eta indarreko jendeak bere inbertsioak

bideratzeko erabiltzen duena»

alibiatzeko behar du izan landa turismoak, eta ez kapitala dutenen inbertsioak bideratzeko. Artzainak ardiak sartzen baditu arditegian, sailkatu egingen ditu bere beharren arabera. Honekin erran nahi dut denak libre utzi ezkero, limitazioerik gabe, indartsuenak bulkatu eta azkenean guztia berak jaten duela. Nekazal turismoarekin gauza bera gertatzen da. Honekin ez nuke inoren kontra aritu nahi, eta mina ematen dit modu honetan mintzatzea,

baina prioridadea, behar duenari eman behar zaio.

Nekazariak pisu haundia duzue Landa Etxeen Elkarteak?

Ez, nahiko txikia. Ez dut datu zehatzik baina ehuneko 20 baino gehiago ez da izanen. Gainerakoek bertze ogibide bat dute eta erretiratu aunitz dago.

«Gero eta etxe gehiago deklaratu eta legalizatu gabe ari dira lanean»

Zein da zure asmoa Elkarteko buru bezala?

Sektore honetan pirateria haundia dago, eta aldiberean defraudatu ere egiten da; nekazal turismoaren propaganda egiten da eta gero turistek ez dute hori ikusten aunitz kasutan. Nik gauza hauek denak saneatu egin nahi nituzke, baina horretarako administrazioak ere sartu beharko du.

Bertzalde, oinarriko prezioa jarri nahi nuke urte honetan berean. Beti auzokoek zenbat kobratzen duten begira gaude guk bost duro guttiago kobratzeko, eta hola ezin da. Prezioek gora joan behar dute eta ez behera.

Zeintzuk dira landa etxeen arazo nagusiak?

Niretzat, pirateriak egiten digun konpententzia. Gero eta etxe gehiago ari da deklaratu eta legalizatu gabe lanean. Eta delikatua bada ere, nire postuak hitzegitera behartzen nau, eta erran beharra dago jubilatutako aunitz ari dela sartzen. Honek erran nahi du jende aktibo eta behartsuei ogia kentzen zaiela. Saneatu egin beharko litzateke, nekazal turismoa jende aktiboaren izenean egin beharko litzateke. Administrazioak sartu egin beharko luke beharra duenaren alde jokatzuz; zonarako txarra litzateke elkarre-

kin enfrontatzea, azkenekoa da. Denbora berean, kontutan hartu behar da jendea herrietan bizitzea komeni dela. Badira etxe osoak eskaintzen dituztenak eta jabea Gipuzkoan edo bertze nonbaitetan bizi dela. Hori dena garbitu egin behar da.

Landa etxeen masifikazioaz hitzegiri al daiteke?

Bai, aunitz dago. Administrazioak zerbait limitatu du, baina limitazioa arunt txarra ikusten dut. Dagoena da dirulaguntzak kentzeko asmoa. Honek erran nahi du lehen baino egoera txarragoan geldituko garela. Lehen neketan baldin bazegoen baserritarra, orain ezinezkoa du. Eta kapitala duena sartu egingen da laguntzak izan edo ez izan. Bidea libre utzi zaio indarra duenari, eta indarrak ez daukanak, berriz, ezin sartu.

Nekazarien etxeak edo landa etxeak?

'Kalidade karta' delako horrekin akaso zerbait desberdinduko dira. Baina ez da batera erraza izanen. Eskatzen da etxea ahalik eta hobeki moldatzea turismoaren gustorako, eta nekazaritza ekonomia azken muturrean dagoenez, turismotik ateratzen duenak bere eguneroko gastuetan sartu beharra dauka. Bertze batzuk, berriz, enpresariak eta horrelakoak, inbertsio modura hartzen dute landa turismoa. Arazo ekonomikorik ez daukatenez, etxeak eta inguruak ongi moldatzen aritzen dira. Argi dago turismoaren gustoa aisago beteko dituela jende klase horrek eta nekazaria beti gibeletik ibili beharko duela.

Zer diozu kalidade kartari buruz?

Uste dut ongi etorriko dela, bainan horren beharrik ez zen izanen haiseratik gauzak bertze modu batera egin baliara. Azken batean, turistak ongi jakin behar du bakoitzak zer eskaintzen duen. Denetarik izan daiteke: lo egiteko gelak, turismo aktiboa nekazari lanetan, haurren



«Masifikazioak elkar jatea ekartzen du eta gure nortasun kulturalaren kalterako da»

zaintzea, mendiko ibilaldiak... Bakoitzak zer eskaintzen duen argitasun guziarekin azaldu beharko da.

Berdinak al dira Bertiz Partzuergo Turistikoak eta Landa Etxeen Elkarteak dituzuen interesak?

Ez, arunt desberdinak dira, landa etxeek, teorikoki bederen, eguneroko soldata basea lortzea dute helburu. Eta konsortzioak, berriz, ahal den prezio bajeunak jarri nahi ditu ahal den prezio bajeunak jarri nahi ditu ahal den es-

kaintza hoberena jarri ahal izateko. Guk bere neurriko prezio batzuk nahi genituzke, konsortzioak, berriz, bisuteriaren prezioak nahi ditu turismoa masifikatzeko. Masifikazioak elkar jatea ekartzen du eta gure nortasun kulturalaren kalterako da.

Kontent zaude Landa Etxeek duzuen tratamendu fiskalarekin?

Ez, administrazioak nekazal turismoa negozio moduan ikusten du. Zaku berean sartzen gaitu eta tratamendu zorroztza ematen digu.

HARAGIA



Diru laguntzak baragi sektorearentzat

Behi eroen krisialdiak nekazariengan eragin dituen kalte ekonomikoak gainditzeko, Europar Batasunak 140.000 milioiko dirulaguntza emanen du. Dirulaguntza hauek haragi behien priman bitartez bideratuko dira. Beraz, primak haundiagoak izanen dira datorren urtean.

INGURUGIROA



Nekazaritza Ekologikoaren Eguna

Joan den urteetako ohiturarekin segituz, ekainaren 16an Nekazaritza Ekologikoaren Eguna ospatu zen Basaburuan. Nekazaritza ekologikoa duela bortz bat urte hasi zen zabaltzen Nafarroan eta geroztik aunitz garatu da. Egun 50 bat lagunek egiten dute eta guztira 725 Hektarea landatzen dira.

SUTEAK



Sua egiteko debekua azaroaren 15a bitarte

Nafarroako Gobernuak debekatu egin du suaren erabilera azaroaren hamabortza bitartean. Suterik ez gertatzea da neurri honen helburua.

ENERGIA



Lehen haize errota Leitzako Aritz mendian

Leitzako Aritz mendian jarri dituzte jada lehenengo zazpi haize errota, eta gehiago jartzeko ere ari dira prestatzen eustazpiak. Beraz, Nafarroako bigarren parke eolikoa martxan da: 31 haize errota izanen ditu eta 3.000 milioiko inbertsioa eskatzne du.

Esne behiaren sektoreak 400 milioi baino gehiago inbertitu ditu kuota erosten

Joan den urtean esne behien sektoreak 400 milioi Pta. pasatuak inbertitu ditu kuota erosten. Bestalde, Administrazioak diru gutti inbertitu du sektorea egokitzen.

EHNERen iritziz, sektoreak ezin du jaso egokitze prozesuaren kostea, eta are guttiago kuota sistema zalantzan dagoenean. EHNE sindikatuak azaldutako datuen arabera, 95-96 kanpainan 400 milioi Pta. pasatuak gastatu dituzte behiaren esnea produzitzen duten abeltzainek beren explotazioak handitzeko. Guztira 163 produkzio kuota transferitu dira, 12.279.847 esne kiloko transferentziak, hain zuzen (banaz bertz 75.336 kiloko transferentziak). Transferentziaren %86a Nafarroatik dator (140 expediente), eta gainontzeko 23ak Extremadura, Errioxa eta Aragoitik bideratu dira.

Bertzalde, 45 explotazioetako 1.440.388 esne kilo transferitu dira modu ez iraunkorrean, salmenta zuzeneko 400.000 kiloetaz gain

EHNERen balorazioa

EHNERen iritziz, sektorea ari da ordaintzen soilik birmoldaketa

sakon honen zerga, eta Administrazioak ez du behar adinako esfortzua egiten, «sektoreak 400 milioi gastatu ditu, Gobernuak 20 besterik gastatu ez dituenean».

Nekazari eta abeltzainen sindikatuarentzat ezin da utzi sektorearen birmoldaketa merkatu librearen esku, eta Administrazioari dagokio kuota behar duenari emateko bide azkarrak eta egokiak ezartzea. «Kuotaren merkatura libre uzten baldin bada explotazio ttikienak desagertu egingen dira eta produkzioa kontzentratu egingen da».

Bertzalde, zalantzan jartzen du transferentzia sistema. Izan ere, egindako inbertsioak deustan geldidatezke kuota sistema desagertuz gero. «Kuota sistema zalantzan jartzen ari da, batez ere ipar Europako produktore handien aldetik. Egindako inbertsioak ezertan geldidatezke kuota sistema aldatzen bada, eta abeltzainak ez du zergatik jaso behar koste hori guztia, erabaki politiko baten ondorio zuzena delako; baserritarrek ez dute nazioartean egindako negozio-ketaren ardura», azaltzen du. ■

EHNE

«Kuotaren merkatura libre uzten bada explotazio ttikienak desagertu egingen dira eta produkzioa kontzentratu egingen da».

PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK

ZERRIKUMEA

* 20 Kilokoa



Azkeneko joera



ZERRI GIZENA

* 95-100 kilo artean Pta./K.



Azkeneko joera



Janari ekologikoak

Zonalde hauetan, Euskal Herriko bertze hainbatetan bezala, janaria kultura da. Begirune berezia ematen zaio janariaren kalidadeari eta orain, beharbada gehiago, behi eroen krisia dela eta. Adituek diotenez, janariak eragin handia du jendearen osasunean eta eritasunen sortzaile ere bada. «Munduan zabalean izaten diren hiru gaixotasunetatik bi janariaren ondorio zuzena dira» dio Benjamín Caballero mediku adituak. Ildo beretik, munduko gaitz degeneratiboen %60ak janariarekin zerikusia dutela adierazi du FAO elkarteak. Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) berriz, 200.000 produktu toxiko daudela dio, osasunerako kaltegarriak direnak alegia.


Kezka hauek direla eta janari biologikoen produkzioa eta kontsumoa handitzen ari da. Nafarroan, 50 nekazari, 5 abeltzain eta erlazain bat dira elikagai biologikoak produzitzen dituztenak. Horretaz aparte, 11 ontziratzaile, 4

upelategi eta 2 okindegi badira. Beraz, produktu ekologiko aunitz dasta daitezke.

Desberdintasunak

Produktu ekologikoak erabat naturalak dira. Lurrak garrantzi handia du eta garbi mantendu behar da: ezin dira erabili ongari ez naturalak. Aldi berean, intsektizida kimikoak debekatuak daude, naturalak behar dute izan. Aziendari dagokionez, baldintza berdinak betetzeaz gain, pentsuak naturala izan behar du. Guzti hori kunplitu ahal izateko, Nekazaritza Ekologikoaren Kontseilu Arautzailea dago prozesua kontrolatzeko. Honek ezartzen dituen baldintzak betetzea ezinbertzekoa da produktu ekologikoaren homologazioa lortu ahal izateko.

Orohar, produktu ekologikoei gai idor gehiago izaten dute eta hor egoten dira bitaminak. Aldi berean, ur guttiago dute. Beraz, elikagai ekologikoei gustu gehiago dute, itxura hain ona ez izan arren; egitea gehiago kostatzen zaie baina sustantzia gehiago hartzen dute. Bertzalde, nekazaritza ekologikoa ingurumenaren errespetuzko filosofia da. Produktibismotik urrun, oreka bilatu nahi du naturarekin kalidadezko elikagaiak produzitu eta inguruko garapena bultzatu ahal izateko. Zerbait garestiagoak direla egia da, produkzioa ttikiak eta eskaria handia baita. Gainera,



Zonaldean produkzio eredu hau hagitz garatua ez badago ere, hasia da. Beran, errate baterako, bada haragi biologikoa produzitzen duen baserritarra.

tzen zaie baina sustantzia gehiago hartzen dute. Bertzalde, nekazaritza ekologikoa ingurumenaren errespetuzko filosofia da. Produktibismotik urrun, oreka bilatu nahi du naturarekin kalidadezko elikagaiak produzitu eta inguruko garapena bultzatu ahal izateko. Zerbait garestiagoak direla egia da, produkzioa ttikiak eta eskaria handia baita. Gainera,

bolumen ttikiak zertxobait garestitu egiten du banaketa. Dena dela, produkzio ekologikoak banaketa zirkuitu laburrak bilatzen ditu, hori baita ekologikoena: bertakoek bertakoa kontsumitzen.

Bio Lur-eko Rosa Barasoainek adierazi duenez, «prezioak eskariaren arabera dira, guztiok mentalizatuko bagina produktu hauen kontsumoan prezioak jautsi eginen ziren». Produkzioa hain masifikatua dagoen honetan, eta produktu ekologikoen gero eta eskari handiagoa dagoenez, aukera ere izan daiteke nekazaritzaren garapenerako. ■

ABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK •

ARETZE GIZENA

● IDIXKOAK (Pta./Kg. kanal) 1.koa
● URRUXAK (Pta./Kg. kanal) 1.koa


Azkeneko joera



ARETZE TTIKIAK

● NABARRAK
● MESTIZOAK 15 egun inguruko IDIXKOAK

Azkeneko joera



EMAKUMEA ETA BASERRIA

Emakume Baserritarren Elkarteak

EBEL, Emakume Baserritarren Elkarteak, legezatu berria da Nafarroan, Emakumearen Institutuan parte hartu ahal izateko. Berrehun emakumetik gora dira EBELeko kideak Nafarroan eta proiektu garrantzitsuak

ditu esku artean. Alde batek, emakume baserritarrei buruzko lana egiteko proiektua aurkeztu du Institutuan, eta bertetik, bertze emakumeekin lana eginen duten dinamizatzaileak formatzeko proiektu bat ere badute.

ERREKORRA

1.621 Kiloko idia

Bilboko hiltegi baten hil berria den *Rubio* idia Guinness liburuan sar daiteke, izan ere 1.621 kilo pisatu baititu bizirik, eta kanalean berriz, 1.151'5 kilo. *Rubio* pirenaiak

arrazakoa da eta Nikolas Pedernalesek hazi du Bizkaiko baserri batean. Hipermerkatu batek erosi du 3.454.500 pezeta ordainduta, hau da kiloko 3.000 pza.

ESNE-BEHIAK

NTKI-ITGVk Baztan Bidasoan kontrolatzen dituen behitegien iazko datuak eman ditu ezagutzera

Nafarroan Estatu espainoleko esne produkzioaren %2,81a ateratzen da. Banaz bertze, behitegi bakoitzak 20 behi ditu eta 95.000 kiloko kuota. Dena dela, behitegien artean desberdintasun haundiak daude. Nafarroako iparmendebaldeari begiratuz, Baztan-Bidasoaldean 800 inguru dira esne kuota duten nekazariak eta banaz bertze 40.000 kiloko kuota dute. Kopuru honetan sartuak daudenentzat, halere, ez da esne produkzioa duten aktibidade bakarra. Aunitzek badute bertze produkzioerik ere (zerrikumeak, ardiak...).

160 baserritan produzitzen da zona honetan ateratzen den esne guziaren %61a

Nafarroako iparmendebaldean ekoizten den esne guziaren %61a nekazarien %20ak produzitzen du. Nafarroako Teknika eta Kudeaketa Institutuak (NTKI-ITGV) Baztan-Bidasoan kontabilitadea eramaten dien behitegiei dagokionez, banaz bertze, 29 behi eta 180.000 litroko produkzioa

du bakoitzak. Ez dute familiak kanpoko langilerik enplegatzen baserrian, eta banaz bertze, 15 Ha. lur dauka bakoitzak. Horiek horrela, inguru honetan dauden gainerako esplotazioak baino haundiagoak dira eta gehien-gehienak inbertsioak egin dituzte euren behitegietan. Esplotazioen erdiek badute bertze produkzioerik, nahiz eta ekonomikoki garrantzitsuena esne-behien produkzioa izan hautentzat.



Nondik heldu dira diru-gastu eta irabazbiderik haundienak?

Behitegietan diru sartzerik

garrantzitsuena esnea saltzetik heldu da, 46,2 Pta/litroko iaz. Gastuen aldetik, berriz, gasturik haundiena azindak bazkatzeak ekartzen du, %80. Gelditzen den Irabazi Gordina diru-sarreraren erditua da (diru-sarrerari gastu mugikorrek kenduta). Aziendaren elikadurak (pentsuak eta bazkak) duen pisua ikusirik, arrot garrantzitsuena da hori ongi gestionatzea eta gastuak murriztea. Zentzu horretan, belaiak eta landak ongi manejatzen dituztenek gastu tikiagoak dituzte eta lortzen dituzten irabaziak haundiagoak dira. Ongarri eta zoriongarriak, kalidatezko siloak, arto ereiteak... dira bertzeak bertze, garran-

tzi haundiko estrategiak hori lortzeko.

Gastu fijoek dagokionez, eta esplotazio hauen artean aunitzek estruktura berriak dituztela kontutan hartuz, inbertsioek eramaten dituzten kargak (amortizazioa eta maileguak) %40koak dira. Hau horrela izanik, berriketa planak ongi pentsatutako planifikazio eta azterketaren ondorio izan behar dute, hortxe hartuko den erabakiak etorkizuna baldintzatuko baitu.



Behitegi batean, berriketa planak ongi pentsatutako planifikazio eta azterketaren ondorio izan behar dute, hortxe hartuko diren erabakiek etorkizuna baldintzatuko baitute.

GOMENDIOAK

Artikulu hau IRATXE Kontsumitzaileen elkarteko teknikoak den Mikel Bezunarteak prestatua da. Bidai agentzi eta garraio sistema desberdinetan gehien ematen diren erreklamazioen errepaso egiten du, eta bidenabar, horiek guztiak saihestu ahal izateko hainbat kontseilu ere eskaintzen digu.

Oporretan joan aitzin kontutuan hartu beharrekoak

Bidai Agentzi eta garraio-zerbitzuekin arazorik ez izateko gomendioak

Erreklamazio gehienek, hartzen ditugun zerbitzuen irautzen, aldaketa edota ezeztapenekin dute zerikusia. Gisa honetako arazorik ez izateko, zera gogorazi nahi genizuke:

① Alde batetik zerbitzu solteak kontrata ditzakegu (billete erreserbak, hotelak...), edo bertzenaz, pakete turistikoak deitzen direnak, hau da, zerbitzu saila batera.

② Zerbitzu soltea kontratzen baldin badugu, agentziak billetea eta balioaren faktura eman behar digu. Pakete turistikoa aukeratzenean baldin badugu, sinatu dugun kontratuaren kopia eskatu behar da, onartzen ditugun zerbitzuak eta horien prezioak argi eta garbi ageri direla.

③ Bidai agentziak, guk kontratatu ditugun zerbitzuak sinatutako baldintzetan emateko betebeharra dauka. Bidaia hasi baino lehen aldaketarik baldin bada, onartu edo baztertu dezakegu inolako ondoriorik gabe, eta aldaketa bidaiari gaudela gertatzen bada, dagokigun kalteordaina eskatzeko eskubidea dugu.

④ Publizidade prospektuak argibide nahiko eman behar ditu, eta enpresak, bere zerbitzuak prospektuan agertzen diren bezala eskaini beharko ditu.



⑤ Bidai agentziak balioaren %40a arte eskatzen ahal digu garrantzia gisa, baina orduan, horren erreziboa edo ordaindu dugunaren agiria eman beharko digu.

⑥ Bidaia onartu ondotik, lekurik gabe geldu ez gaitzen, garrantziaren dirua ematerakoan idatzizko baieztapena eskatuko dugu.

⑦ Bidaia ezeztatzen badugu, garrantzia bezala ematen dugun dirua eskuratu ahal dugu, baina agentziari ordaindu beharko diogu ezeztapenak eragiten dituen gastuak behar bezala argiturik eta ezeztapen epearen arabera penalizazioa.

⑧ Agentziari gure erreklamazioa egiteko, nahitaezkoa da publizitatea, faktura eta kontratua edukitzea. Horretaz gain, kontratuan agertzen diren baldintzak bete ez direla erakusten duten frogak ere beharko ditugu.

Garraioak

Erreklamazio gehienak ezeztapenak, atzerapenak eta ekipaiak galtzeagatik izaten dira.

Hegazkina: Txartelak norberak berea bakarrik erabil dezake. Galduz gero, enpresari kopia eskatzen ahal diogu eta penalizazio bat jarri ahal digute. Bidai txartela ezeztatzen badugu, %25-50 arteko isuna ordaindu beharko dugu.

Bestalde, atzerapenik gertatzen bada, kalteordaina eska dezakegu eta fakturatutako ekipaia galdu, hondatu edo berandu ematen badigute, indennizazioak daude.

Trena: Txartela behin bakarrik alda dezakegu 200 Pta. inguruko ordainketa egin ondoren. Bestalde, nahiz eta fakturatutako ekipaiarentzat galera aseguruia egin, komeni da balio haundiko gauzak deklaratzeko. Ordu atzerapenengatik kalteordainak daude.

Autobusa: Bide luzeetan, erretzaileentzat leku bereziak egonen dira eta 30 km. baino bidai luzeagotan, bidaiariak ezin dute zutik joan. Kalteordainetarako, balio haundiko gauzak aitortzea komeni da.

LITERATUR LEHIAKETAK

Iruñeko Udalak antolatuta, XI. Literatur Lehiaketa Egile Berrientzat

Iruñeko Udalak, gure inguruan euskaraz egiten den literatur produkzioa eta bere egileak bultzatu nahirik, 1.420.000 pezeta-ko sariez hornituriko literatur lehiaketa antolatu du. Denetara, lau sail desberdin izanen ditu aurten-goan: *Olerkia, Narrazio Laburra, Bertso-paperak* eta *Komikia*.

Aipatu lehiaketan, beren helbidea Nafarroan finkatua duten guztiek parte har dezakete, eta idazlanek, gai librean, honako baldintzak bete beharko dituzte:


- 1 Euskaraz idatzita egotea.
- 2 Jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izatea.
- 3 Egile bakoitzak sail bakoitzean lan bakar bat aurkeztu ahal du.
- 4 Bere izenpean literatur edukinezko obrak argitaratu dituen egileak ezin izanen du bere lanik aurkeztu. Elkar lanean argitaratu diren lanetan egindako partaidetzak ez dira mugapen honetan sartzen.

Lanen luzaera

Olerkigintza sailean aurkeztu behar diren lanak gutxienez 15 folio eta gehienez 25 izanen dute, biko epeaz eta paperaren alde batetik idatziak.

Narrazio laburreko sailean, bestalde, gutxieneko 15 folio eta gehienez 25, hauek ere biko epeaz eta paperaren alde batetik idatziak.

Bertso paperen modalitatean 25 bertso gutxienez eta 40 gehienez. Elkarrekin lotura orokorra duten



Lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira Iruñeko Erregistro Ofizialean

gai ezberdinak jorra daitezke, bertsolaritzaren arau formalak beteaz.

Komiki sailean, azkenik, DIN A4 tamainan edo formato horrekin proportzioa duen edozein tamainetan aurkeztuko dira lanak. Koloretan baldin badira gutxieneko 5 orrialde eta gehienez 7; zuri-beltzean izanez gero, 5 orrialde gutxienez eta 12 gehienez.

Epeak

Lanak Iruñeko Udalaren Erregistro Ofizialean aurkeztu beharko dira 1996ko urriaren 31 baino lehen. Komikietan izan ezik, lan bakoitzaren 5 kopia aurkeztu beharko dira izen-

orde batez sinatuak eta lehiaketaren zein atalari aurkezten diren ongi adieraziz, ondoan eta sobre hertsu batean jakineraziko dira egilearen izen-deiturak, sorlekua, helbidea eta telefona.

Sariak

Modalitate bakoitzean hiru sari banatuko dira: 180.000, 100.000 eta 50.000 pezeta-koak bakoitza. Sari huez gain, epaimahaiak 25.000 Ptako. lau akzesit banatzeko ahalmena izanen du zein sailetan aurkeztu diren begiratu behar izan gabe.

Bertze edozein xehetasun jakin nahi izanez gero, deitu Iruñeko Udalera.



Ezkerretik eskuinera Iñaki Gilizasti Urdulizko Euskara Taldekoa, Fernando Muniozguren Eibarko ... eta kitto! elkartekoa eta Axun Aierbe Tolosako Galtzaundikoa

Euskara Elkarte Topagunea sortu da

Euskal Herriko 29 euskara elkarteek Euskara Elkarte Topagunea sortu zuten ekainaren 15ean Durangon, Topaguneak egoitza izanen duen herrian. Izan ere, Durangoko Berbaro elkarteak izan da Topaguneari egoitza eskaini diona. Oraingoz bazkide egitea erabaki duten euskara elkarteak 29 dira, horietatik 13 Gipuzkoakoak, bertze 13 Bizkaikoak, 2 Arabakoak eta 1 Nafarroakoak. Denen artean 6.500 bazkide inguru dituzte.

Euskara Elkarte Topagunearen Oinarriak izeneko txostenak dioenez, Topagunea euskara elkarte bilgunea da. Horregatik, elkarte hoiengandik nagusiak bilduko ditu bere baitan, elkarte aniztasuna errespetatuz. Oinarri horien artean hauek dira garrantzitsuenak: helburua euskararen normalkuntza izatea, hots, euskara elkarteak ez diren erakundeekiko harreman organikorik gabeak; zabalak eta euskaltzale guztiei idekiak izatea... Durangon 1996rako egitasmoa eta aurrekontua ere onartu ziren.


Egitasmoetan, euskara elkartei buruzko jardunaldiak antolatzea, herri aldizkarien arteko elkarlanari hasiera ematea, soziolinguistikari buruzko ikastaroak prestatzea eta 1997an euskara elkarte azterketa eta garapena (I+G) ahalbidetzeko sistema prestatzea daude bertzeak bertze. Aurrekontuari dagokionez, 3 milioi pezeta pasatxo izanen ditu lehen urtean eta dirusarrera nagusia elkarteen aportazioak izanen dira (500 Pta. bazkideko).

Abiatu da Nafarroako Trikitilarien III. Txapelketa



Goizueta eta Lakuntzako bestetan eginen diren kanporaketetan puntuaziorik altuena eskuratzen duten 8 bikoteek jokatu dute finala Altsasuko bestetan irailaren 15ean. Denetara 18 bikotek parte hartuko dute.

Aurkeztu diren 18 bikoteekin bi talde osatu dira, eta beheko parteko zerrendetan ageri dira Goizueta eta Lakuntzako aurrekanporaketetan arituko diren trikitilariak. Bi saio hauetako puntuazioak kontutan hartuta puntuaziorik altuena duten zortzi bikoteak pasatuko dira Altsasuko jaietan eginen den finalera.



Aurreko bi edizioetan Etxarriko Mikel eta Iñaki Mundiñanok eskuratu zuten txapela. Argazkian ageri direnak, halere, Jone Elgorriaga eta Izaro Ansa dira.

Jo beharreko piezak eta txapelketaren arautegia

Trikitilarien kopurua kontutan izanik, Goizueta eta Lakuntzako saioetan 3 pieza jo behariko ditu bikote bakoitzak. Horrela, bada, *trikitixa*, *porrusalda* eta *fandangoa* jo behariko dituzte, eta *bidekoa*, sartzerakoan bakarrik joko da.

Epaimahikoen erabakia aldezina izanen da eta partehartzaileek baserritar jantzi az agertu behariko dute. Puntuazioak, ohitura den bezala, arbelean jarriko dira partehartzaile eta ikusentzuleek aurrean izan ditzaten.

Txapelketak bi aurrekanporaketa ditu, lehena Goizuetan eta bigarrena Lakuntzan, eta herri guzietan, baita Altsasuko finalean ere, saioak herriko plazan eginen dira eguraldiak laguntzen badu. Bertzenaz, pilotaleku estalietan eginen dela jakinarazi dute antolatzaileek.

GOIZUETAKO FESTETAN (abuztuak 15, arratsaldeko 6.30etan)

Dani eta Ainara Narbarte.....	Goizueta
Iruñe Agirre eta Onditz Artieda.....	Arbizu eta Etxarri
Amaia eta Joseba Irastorza.....	Bera
Ainara Mindegia eta Harkaitz Mindegia.....	Ituren
Lorea Babaze eta Ainhoa Etxegarai.....	Urrotz eta Donamaria
Iruñe eta Patxi Zabala.....	Goizueta
Oihana Almandoz eta Jose Mari Elgorriaga.....	Lesaka
Nekane Etxandi eta Estitxu Elgorriaga.....	Lesaka
Onintza eta Ainhoa Bengoetxea.....	Leitza

LAKUNTZAKO FESTETAN (abuztuak 25, eguerdiko 12.30etan)

Garikoitz Arrieta eta Jose Mari Elgorriaga.....	Sunbilla eta Lesaka
Mikel eta Iñaki Mundiñano.....	Etxarri
Iñaki Mendiñueta eta Onditz Artieda.....	Arbizu eta Etxarri
David eta Loren Nuñez.....	Lezaun
Olatz Irigoien eta Leire Amoros.....	Arantza
Nerea Saralegi eta Xabier Arraras.....	Leitza
Maria Mutuberria eta Jaione Otxandorena.....	Elgorriaga eta Sunbilla
Aitziber Mindegia eta Amaia Arretxea.....	Ituren eta Sunbilla
Jone Elgorriaga eta Izaro Ansa.....	Lesaka eta Arano

OIHANGINTZA

FOREXPO 96

Nobedade gutti makinaria kontuan, gehienak lehendik ezagunak. Bertzalde, ikusgarriak izan ziren neurri haunditan egindako egur-lanak eta motozerra lehiaketa

Joan den hilabetearen 5, 6 eta 7an burutu zen Soutons herrian (Landetan, Frantziako hegoaldean) Forexpo 96 izeneko feria haundia.

Hiru egunetan jende aunitz ibili zen makinak eta bertzelako ikusgarriak bistatzen. Feriak hartzen zuen eremuaren barrenean makina-etxe bakoitzak bere stand-a zuen muntatua eta makinaria kontuan nobedade gutti agertu zen. Izan ere makina gehienak lehendik ezagunak genituen.

Makina berriak

Nobedadetan aipagarriena *prozesadora* izeneko makina izan zen. Honek pinua moztu, adarrak kendu, enborra nahi den negurrian moztu eta pilatu egiten du. Izigarri errexten du lana, bainan ikusi egin behar hemengo malda eta patarretan lanean aritzeko modurik ote duen. Egurra nahi den negurrian moztu duen bertze makina bat ere ikusi genuen. Gainerakoan, gehienak lehendik ezagunak ziren makinak; *retroak*, *zulatzaileak*, *etabar*.

Mindegitza

Aipatzekoa da ere mindegitzari buruz ikusgai zeuden gauzak; erdin eta hazteko sistema eta modalidade desberdinak (erretilu sistema, etabar).

Egur lanak eta motozerra lehiaketa

Makinariatik aparte baze goen aipagarriak diren bi gauza. Batetik neurri haundiko zura landuen erakusketa, pertsona baten negurrian zizelatutako



Makinaria kontuan aurten ez genuen nobedade haundirik ikusteko aukerarik izan

Nobedadetan aipagarriena 'prozesadora' izeneko makina bat izan zen.

gauza besberdinen idurikin; zaldi-buruak, gizonen zakilak, eta bertze edozein gauza bitxi. Eta bertzalde, motozerra lehiaketa ttiki bat ere izan zen. Partehartzaile bako-

tzak bere abildadea ahal bezain ongi erakutsi behar zuen, eta zuhaitza, han jarrita zuten makilatik ahal bezain hurbil bota.

Eta hauxe da hiru egun sargoritsu haien kronika. Ea hurrengo edizioan nobedade gehiago ikusteko aukerarik dugun eta hemen kontatzen ahal ditugun.

● J.M.J. ●

BARATZE
XOKOA

GOMENDIOAK

○ **Barazki eta fruitondoak tratatzeko sendabelarrak eta prestatzeko moduak**

Erabilterrazenak osina, kardabera, kamamila, zaldibuztana. Zenbait, zertarako balio duten aipatu izan dugu lehendik, orain prestatzeko moduak azalduko ditugu.

Irakin duen purina: bidutako landareak arpilera zakuto batean daudela, sartu ontzi batean eta zakuari harri bat jarri gainetik. Euri urarekin estali. Egutero nahasi. Ura beltzatu denean eta aparrik ateratzen ez denean prest dago erabiltzeko. Gehienetan landareen zainetarako erabiltzen da. Honela prestatutako hainbat sendabelarrek (osiña, kardabera, kamamila) barazki edo fruitondoek bizkortzeko balio dute.

Ondu gabeko purina: Purin hau egiteko batez ere osinak erabiltzen dira. Lau egunez euri uretan eta eguzkitan eduki behar dira. Purin hau intsektuen kontra erabiltzen da (eulitxa, zorri...).

Infusioa: Irakindako ura sendabelar idor edo freskuen gainean bota. 24 orduz eduki behar dira uretan eta hostoetako intsektu eta xomorroak kentzeko balio du.

Egosita: Sendabelar idor edo freskuak beratzen utzi 24 ordutan. Gero ur berean 20 minutu jarri irakiten, ontzia tapatu eta hozten utzi.

Hurrengo alean formula zehatzak eskainiko ditugu.

LABUR

○ **Mindegitzari** buruzko ikastaroa egin da Juansenean maiatza eta ekaina tartean. 20-30 bat lagun aritu da ikasten eta arrakasta haundia izan du.

○ **Laborantzari zuzendutako lur eremuak** birlandatzeko dirulaguntzak eskatzeko epea maiatzaren 30ean akitu zen. Gure eskualdean 277 Hektarea landatzeko eskaria egin da, erdia baino gehiago Goizueta (15'1), Arantza, Elgorriaga, Elizondo, Etxalar, Saldias eta Sunbillan.

○ **Otsaileko haizeteen** kalteak haundiak izan dira. Eskualdeko mendi komunaletan 16.358 m² egur galdu dira eta mendi partikularretan 13.500 m² inguru. Goizueta izan da Nafarroako herririk kaltetuena komunalei dagokionez, 5.670 m² galdu baititu.

EGUTEGIA abuztua-urria

BARATZEAN

1.- Erein

- Tipulak, azelgak, udaberrirako azak, espinakak, azenarioak, endibiak...

2.- Landatu

- Porruak, kardoak, azak, azaloreak, tipulak...

LORATEGIAN

1.- Landatu

- Irailean, udaberrirako bulboak (tulipanak, pipalorak, Crocusak...) ereiten hasten ahal gara. *Bellis* margaritak, pentsamietoak... landatu. Soberan dauden krisantemo loreak kimatu lore ederragoak lortzeko.

ONGARRIAK: NOLA ETA ZERTARAKO ERABILI

Ongarriak luraren estruktura hobetzen du, hezetasuna kontuz eta aireztatuz. Emankortasuna haunditzen du eta elikatzeko elementuak ekarri.

• Ongarri batzuk lurra aberas-teko balio dute. Karbonoan aberatsak eta Nitrogenoan nahiko pobreak izaten dira, kantitate haunditan erabiltzen dira (5-20 Tona/Ha.). Ongarri hauek gorotza, belar hondakinak, etxeko hondakinak... osatuak izaten dira. Erabili aurretik zahartze prozesu bat behar du, gero landareak berehala probextu ahal izateko. Gorotza freskoa ongarrira berehala behar ez duten landaretan erabiltzen da (fruitondo, belar soro, patata, tomate, erremolatxa...).

• Landareei Nitrogenoa emateko balio duten ongarririk. Karbonoan pobreak eta Nitrogenoan aberatsak dira, kantitate ttikietan erabiltzen dira (200-1.000 kilo/Ha.).

Pixa, guano, gorotza, odola, adarrak, lumak, arrain hondakinak... materiale hauetaz osatua dago. Komertzioetan saltzen da eta garesti xamarra da. Pixa Nitrogenoan eta Kaltzioan aberatsa da, gorotzarekin tartekatuta behar da. Eguraldi onarekin banatu behar da errekarara joan ez dadin. Fosforatua egonez gero arazoak izanzen ditugu amoniako eta bertze zenbait sustantzia toxikoekin. Hobe da kanpoan fermentatutako pixa.

Zaldi iraupen errekorra

Salamancako Carmen de la Peña uztailaren 29an ailegatu zen Doneztebera *Zaldi Iraupena* errekorra gainditzeko bidean. Orain 16.000 km 30 hilabeteetan dago errekorra. Carmenek 18.000 km. 16 hilabeteetan egin nahi du errekor berria. Dagoeneko 11.600 eginak ditu. Joan den urteko irailean hasi zen eta urteberritan bukatzeko asmoa du. Espainiar arrazako bi zaldi txandatur ari da egiten proba. *Purina* pentsuek ematen du zaldien jana eta Donezteberako udalak egonaldia ordaindu dio.



DIRULAGUNTZAK

Informazio gehiago: CEDERNA-GARALUR

Baztan ☎ 580561 Bortzirarik-Malerreka ☎ 451654 Leitza ☎ 510009



LANA

Autonomo gisa hasi nahi duten langabeentzat.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 96/92 zenbakian argitaratu zen (92/08/10). Foru Dekretua 259/92. 400.000 pezetako dirulaguntza. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.

Lan esperientziarik gabeko langile tituluak kontratatuzko dirulaguntzak.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 96/92 zenbakian argitaratu zen (92/08/10). Foru Dekretua 259/92. 200.000 eta 350.000 pezeta arteko dirulaguntza kontratu iraupenaren arabera. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabea.

Lanpostu berriak sortzeko Kooperatiba eta Elkarte Anonimo Laboretan (S.A.L.)

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (86/02/27). 86/02/21eko Agindua Ministeriala. 250.000 eta 500.000 pezetako dirulaguntza langile bakoitzeko bere egoeraren arabera. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.



NEKAZARITZA

Nekazaritza ekologikorako laguntzak. Alor horretan prestatu nahi duten pertsona eta elkarreentzat dirulaguntzak.

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (95/02/08). 95/01/20ko 51/1995 Agindua Ministeriala. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.

Emakumeak enplegatuko dituzten industria lantergi berritzaileendako dirulaguntzak.

Europako Komunitadetek bideratutako dirulaguntza. Proiektu bakoitzeko 4.000 eta 10.000 ECU bitarteko dirulaguntza.

Emakumeak presentzia ttikia duten lanbideetan, kontratazio laguntzak enprezentzat.

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (86/02/21). 86/02/27eko Agindua Ministeriala. 250.000 pezeta edo gehiagoko dirulaguntza kontratu bakoitzeko. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.

Ezinduk kontratatuzko dirulaguntzak.

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (86/02/27). 86/02/21eko Agindua Ministeriala. Dirulaguntzak: kontratu iraunkorretan 2.000.000 pezeta gehienez kontratu bakoitzeko; aldi baterako kontratuetan Aseguro Sozialaren %100a eta soldata minimoaren %50a eta autonomoetan 400.000 pta. Deialdi iraunkorra.

Ingurugiroa zaintzen lagunduko duten nekazal produkzioentzat laguntzak.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (95/06/09). Maiatzaren 22ko 113/1995 Foru Agindua. Deialdi iraunkorra eta muga egunik gabekoa.

Basabereek egindako kalte-ordainak.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (95/06/12). Maiatzaren 19ko 589/1995 Foru Agindua. Deialdi iraunkorra eta muga egunik gabekoa.



ERREKAK

Erreka bazterrak garbitzeko dirulaguntzak.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (93/03/17). Otsailaren 24ko 117/1993 Foru Agindua. Deialdi iraunkorra eta muga egunik gabekoa.



INDUSTRIA

Ttiki eta Erdi Tamainako Industrien Garapenerako Laguntzak.

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (95/05/23). Maiatzaren 8ko Agindua. Deialdi indarrean 1999 arte.

AZKEN ORRIALDEKOAK



Udako suteen kontrako kanpaina

SOS-Nafarroak koordinatuko du kanpaina hau '112' larrialdi telefonoaren bitartez heldu den urriaren 15a bitarte. Inguru honetan, Oronoz-Mugairiko Parkean dauden suhiltzaileez gain, Bera, Leitza eta Lesakako 70 Suhiltzaile Boluntario gehiago prest daude larrialdi kasuetan ateratzeko. Goizuetan ere ari dira prestatzen Suhiltzaile Boluntarioen taldea, baina oraindik orain ez dago martxan.



Iruñeko Zaldi Ferian

Euria egin bazuen ere, sekulako jendetza bildu zen. Iaz baino azienda gehiago zegoen eta gehienak saldu ziren; hori bai, zerbait merkexeari. Zaldiko-behokak 40.000 eta 70.000 Pta. artean saldu ziren, iaz baino 10.000 Pta. merkeago. Behorrak 100.000 Pta. inguru egin zuten, 150.000 arte altxatuz umearekin. Merkeen astoak, 25.000 Ptatan., eta zaldiak 200.000 Pta. banaz bertze.



Uholdeak Baztanen

Uztaileko euri zaparradek kalte dexente utzi dituzte bazterretan. Batez ere Baztanaldeko mendi eta baserri bide aunitzetan zolak eraman ditu, eta Elizondon, erreka bazterretako etxe eta karriketan ere ura sartu zen. Ordu terdian erreka 5 metro hazi zen.

«Dantza talde batek ez baldin badu entsaiatzen, gauza guti aterako ditu»

Zenbat urte daramakizu dantza irakasle modura?

Aspalditik, kontua ere galdua dut.

Eta herri auniztan?

Mugairen, Donezteben, Narbarten, Elizondon talde bat baino gehiago, Erratzun. Elizondon juntatzen zait jende gehiena, berrehun inguru bederen, eta hoi artean emakumeak, ikastolakoak, Baztango dantzari taldekoak. Gero Donezteben *Trapatanekin* hasi ziren, gero eskolakoak, eskolatik ateri zirenak ere...

Sekulako ordu pila dedi-katuko diozu orduan?

Jakina, holako jende pilarekin behar da ordu pila dedi-katu. Urriari hasi eta ekaina arte, egunean gutenez 6-7 ordu bai, eta batzutan gehiago. Dena den, gustoko dut eta hobekien egiten dakidana da, eta azken finean, herri huntan norbaitek egin behar ditu gauzak, ezta? Jendea mugituko balitz horrela gauza guzietan, herri hau biziko zen hobekiago eta nabarituko zen hor gaudela.

Zenbat dantza talde daude Baztanen?

Segun eta zer entenditzen dugun *talde* hitzarekin. Kanpora ateratzen dena, Baztango dantzez gain bertze dantzak ere dakizkiena eta maila ona duena, bakarra da; Baztango Dantzari Taldea. Gero Arizkunen orai arte izan da Elkartasuna Dantza Taldea, baina toki guzietan bezala, ez baldin bada entsai-



Mari Kruz GOÑI

Arizkungo Dantzaria

TTIKI TTIKITATIK ARRAS GUSTOKO DU DANTZA ETA DANTZAK IRAKASTEN ARI DA INGURUKO HAINBAT HERRITAN: MUGAIREN, DONEZTEBEN, NARBARTEN, ELIZONDON, ERRATZUN... EGU-NEAN 6-7 ORDU EMATEN DITU DANTZAK IRAKASTEN. DONEZTEBEN TRAPATAN DANTZA BERRESKURATZEN PARTE HARTU DU.

iatzen gauza guti ateratzen dira. Irurritakoekin ere gauza beretsua gertatu da. Entsaiaitza dute baina guti. Kanpora ateratzeko pixket eskax!

Azken bi urteotako nobedadeetako bat Andreen Dantza Taldea izanen da?

Neretako denak dira inportanteak. Donezteben *Trapatanekin* gertatu dena ere nahiko inportantea da, kasik galdua egon da eta berriz dantzatzera animatu direla, eta direla gizon batzuk eginak... neretako nahiko inportantea izan da, igoal kanpotik begiratu jendeak inportantzia gutiago eman dio, baina ez dakit. Ez dut desberdintzen ahal gauza bat bertetik. Baztango Andreena fenomeno soziala izan da, kontuan hartzen badugu adin batera ailegatzen delarik bere heldutasunera akitu zaiola dena bizi hun-

tan, baduela familia eta umeak eta nolapaitere dena egin dago. Hortaz, andreendako suposatuko du horrekin haustea, eta erraitea guk ere badugula bertze gauza batzuk, bizia ez dela akitzen 25 urtetan. Ez dira ikaragarriko dantzariak, baina ematen dutena dignidarekin ematen dute.

Hemendik aitzinera begira, zer duzu burutan?

Proiektu aunitz ditut baina ez pentsa gauzak ateratzen direla nik nahi dutan bezala! Hortaz, segi lanean, hori da burutan dudana, zangoek iraun artio.

Gaiuz aldatuz, nola ikusten duzu dagoen kultur mobida?

Egiten dira gauzak. Igoal ez dugu kapazidaderik hori guzia lotzeko, bakoitzak gure aldetik lan egiten dugu, baina tira, nik uste egiten ari direla gauzak.

Landa Lurraldeari buruzko aldizkaria

Argitaratzailea: LURRA Kultur Elkarte • Herriko Etxeko Plaza, 1

• 31780 BERA Ale honetan parte hartu dute: EHNE Nafarroako

teknikoen, Juan Kruz Iriartek, NTKI-ITGVko Garbiñe Elizainzinek eta

beste zenbaitzuk. **Maketazioa eta Banaketa:** ttipi-ttpa Inprenta:

Graficas Ona **Tirada:** 6.300



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



eta gaez dantzaldia ONOFREekin.

Ortzirala 18:
Herriaren Eguna
9etan argisoinuak. **11etan** mustxapelketa. **2etan** herri bazkaria frontoian. **6etan** herri kirolak herri-tarren artean. Arratsalde eta gaez dantzaldia ONOFREekin eta 'Pobre de mi'.

Larunbata 19:
9,30etan auzo-afariak ospatuko dira.




Pazka batean ibiltzea izaten da normalena bestetan. Begira bertzela argazkiotan ageri direnei. Bezperako baztan zopak, Amabirjin eguneko hameketakoa, Gazteen eguneko zentralako bazkaria eta Herriaren Eguneko herri bazkariak gutti balira, larunbatean auzo-afariak eginen dituzte. Bestondoa kentzeko erregimena egin beharko dute!

INAXIO JANTRIDENDA
 Ingandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak
 Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - **LESAKA**

LANCHAS
 • Parketak - Tarimak
 • Kutxillatzea eta bernizatzeak
 • Estaldura orokorrak
 Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



**KOXKILA
 OSTATUA**



Zarandia, 4 - **LESAKA**

BODEGAS ERRASTI, S.L.
 Bodegas Gailur
 ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
 GETARIAKO TXAKOLINA
 Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak
 M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO
 ☎ **58 02 78**



**FOTO
 MENA**

UDA HONETAKO EZKONTZETAKO
 KANPAINA BERRIA HASIA DAGO

KALE NAGUSIA 4 - TEL ETA FAX: 45 08 25 DONEZTEBE
 SANTIAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO

Asteazkena 14 BEZPERA

9etan txistulariak herrian zehar. 12etan arbola altxatzea. 12,30etan iluntasun soinuaren ekitaldia. Ondotik dantzaldia IMUN-TZO eta BELOKirekin.

Osteguna 15 Amabirgin Eguna

8etan argi soinuak herriko taldearekin. 11etan Meza Nagusia. Ondoren, Zubietako joaldunak eta gero bertso saioa. 12etan aizkora apustua: Jaunarena-Larretxea, Mindegia aita-semeen aurka. 6etan Berangoko S.Otxandategi dantza taldea. Arratsaldean eta gauetan dantzaldia ALMEN taldearekin.

Ostirala 16 Haurren Eguna

8etan argi soinuak betikoekin. 11etan pilota partidua. 4,30etan haur joakoak. 10etan Zubietako dantza luzea. Arratsaldean eta gauetan dantzaldia ALMEN taldearekin.



**Bestak eta inautiak...
Inautiak eta bestak. Biak
aski lotuak daude
Zubietan eta bildutako
argazki guziaz
inauterietakoak dira.
Orrialde honetan 1971.
urtean atera zen karroza
bat ageri da, «Gora
ezkongaiak!» izenekoa.**

ORMAETXEA OKINDEGI-OSTATUA

Besta zoriontsuak pasa!
Tfnoa: 45 01 69 • ZUBIETA



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



**Moble
berriak
erakusketan**

TELLETXEA MOBLEAK

Moble modelo berriak
Burdin eta zura konbinazioak

Rosa Seminario z/g • © 45 02 58 • DONEZTEBE

Abuztuaren 14tik 18ra



Larunbata 17
Gazteen Eguna
8etan argi soinuak herri-
 tarrekin. **12etan** pilota par-
 tidua. **6etan** futbito parti-
 dua. Arratsalde eta gauetz
 dantzaldia ALMEN talde-
 arekin.

Igande 18
Herriaren Eguna
8etan argi soinuak.
11etan mus txapelketa
 herrikoentzat. **4,30etan**
 plater tiraketa bertako-
 entzat. Arratsalde eta
 gauetz dantzaldia GAU-
 BELA taldearekin.



1970eko
 inauterietan
 ateratako erretratoa
 ageri da goian.

Lerro hauen alboan,
 1963ko dantzariak
 eta 1959an
 Barrakiloko Pio
 aizkolaria ageri dira
 erretratoetan.

ARGAZKIAK: Ainhoa
 MUTUBERRIAK utziak

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA



AMEZTIA

Jatetxea - Hostala

Especialitatea euskal
 sukaldaritzan eta pintxoetan
 Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE



FAGOR

**SUKALDE
 ALTZARIAK**

6
 urteko
 garantia

BAZTAN

ALTZARIAK
 zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km
 Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak



© 948-451771

Asteazkena 14:

7,30etan altxaferoa bes-tei hasiera emanaz. Ondoren txistulariak auzoz auzo. 9etan baztan zopak Herriko Ostatuan 12etan Igone, Iزارo eta Jone trikitilariak.

Ortzeguna 15:

Amabirgin Eguna

10etan kalejira. 11,30etan Meza Nagusia. Ondoren hameketakoa. 5etan pilota partiduak. Gaztetxoak: Iker-Igor, Jon-Mikelen kontra. Gazteak: Altzugarai-Huarte, Saldias-Andiarenaren kontra. Afizionatuak: Leiza-Urrutia, Atxa-Otxandorenaren kontra. 8etan kantaldia: Jean Michel BEDAXAGAR. Arratsaldean eta gauz dantzaldia HAITZAMA taldearekin.

Ortzirala 16:

10etan kalejira. 11,30etan mus txapelketa Herriko Ostatuan. Goizarratsaldean, haurren jokuak: Karts, gaztelu haizatuak... Dantzaldia HAITZAMA taldearekin.

Larunbata 17:



10etan kalejira. 1etan aizkora apustua: Mindegia-Luis M^a Belarra, Etxeberria-Jaunarenaren kontra. Arratsaldean eta gauz HAITZAMA taldea.

Igandea 18:

10etan kalejira. 2etan zikirojatea, Xabier Amuriza eta Jon Azpillaga bertso-lariek. Arratsaldean eta gauz Jon Iparagirre trikitilaria arituko da bere taldearekin.

Larunbatean aizkora apostu ikusgarria burutuko da. Behitiko argazkian, duela urte pare bateko herriko pala txapelketan finalista suertatu zirenak ageri dira.



M^{re} Dolores Miñana
TOPOGRAFA
NEURKETA • PLANOAK
Lur neurketak, Luberriak
Plantazioak, etab...
☎ 580143 - 989.445986
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO

MINDEGIA
LABEZAR
© 631076 • BERA



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Amezia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 45 03 06

BEREAU
jatetxea • Hotela
Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 63 73 82 - LESAKA



NAFARROAKO PRODYKTV BEREZIAK

ELIKAGAIK

Gazta, txistorra, abatekiak, goxuak, barazkiak, ardoa, patxarana eta likorrak

ESKULANAK

Egurra, buztina, burdina, zumitza...

Astelehenetik igandera irekia

Altzate 14 • Tfnoa: 631151 • BERA

Asteazkena 14:

Gaueko 9etan herri afaria Elorza anaiak trikitalarien animazioarekin, pes-tei hasiera emateko.

Osteguna 15

Amabirgin Eguna

12etan Meza Nagusia. **1etan** aizkol apostua: Arriaren semea, J. Lopezen kontra. **6etan** dantzariak. Arratsaldez eta gauez dantzaldia ATSEGIN taldearekin.


Ostirala 16

Umeen Eguna

12etan futbito partidua: Ezkurra-Betelu. **3etatik 6etara** umeen parkea. **6etan** pilota partiduak. Gazteak: Aldaia-Bengoetxea, Mitxeo-Baleztenaren kontra. Afizionatuak: Esain-Castro, Galarza-Iparagirrerren kontra. Arratsaldez eta gauez ATSEGIN taldea

Larunbata 17

12etan pilota partiduak. Haurrak: Ezkurra-Jaca, Etxeberria-Etxeberriaren kontra. Afizionatuak: Retegi IV-Alberdi, Buldain-Barriolaren kontra. **5,30e-**



tan mus txapelketaren kanporaketak. Arratsaldez eta gauez ATSEGIN taldea.

Igandea 18

1etan mus txapelketaren finala. **2etan** herri bazkaria Millan Telleria eta Mikel Mendizabal bertsoariekin. **6etan** aizkora apostua: Patxi Mindegia, Etxeberriaren kontra. **9etan** Erramun MARTI-KORENA abeslariaren saioa. Gauez soinua ATSEGIN taldearekin.

Herri bazkarirako txartelak herriko ostatueta erosi daitezke: Epea abuztuaren 15ean bukatuko da. Larriak: 2.600 pta. Hamabi urte artekoak: 1.000 pezeta. Abuztuaren 16an erosten duenarentzat 500pezeta gehiago.

ARGAZKIA: Karmele TOLOSA

BARRANKA JATETXEA

Pesta zoriontsuak pasa itzazue


Tfnoa: 61 50 80 • EZKURRA



J. RAMOS

Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut

☎ 631342 BERA • ☎ 637172 LESAKA



ZALDO OSTATUA

LESAKA

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264

Abuztuak 10, larunbata
 Umeen Eguna
 Goizeko 11etan ume-
 entzako jokoak. Toka eta
 xake txapelketak.
 5,30etan umeentzako jo-
 koak. 7etan txokolatada.
 8etan Kiki, Koko, Moko
 eta Flash pailazoen ema-
 naldia.

Abuztuak 11, igandea
 Umeen Eguna
 10etan diana. 11etan me-
 za, haurrak bertako jan-
 tziekin joango direlarik.
 12etan pilota partiduak.
 5,30etan Sebastopoleko
 Titiriteroak taldearekin an-
 tzerkia, haur berbena eta
 zirko tailerra. 8etan Dani
 eta Ainara trikitalariekin
 dantzaldia.
 (Guraso Elkarteak anto-
 latua)

Abuztuak 14, asteazkena
 Amabirjin bezpera
 12etan Udaletxeko bal-
 koitik jaiei hasiera eman-
 go dien itxaferoa botako
 da. Ondoren, trikitalarien
 banda, erraldoi eta bu-
 ruhaundien konpartsak



Gorakada ederra izan du Umore Ona Peñako bazkideen kopuruak azken 34 urte hauetan

herriko kaleen barrena ibi-
 liko dira. 8,30etan Umore
 Ona peñaren irteera.
 Gaueko 12etan gaupa-
 sa ARKAITZ taldearekin
 eta Umore Ona peñaren
 txarangarekin.

Abuztuak 15, osteguna
 Amabirjinaren Eguna
 Goizeko 7etan diana
 Tolosako dultzaineroekin.
 8etan entzierroa.
 10,30etan Meza Nagusia.
 Segidan Amabirjinarekin
 ohiko prozesioa. 12etan

Umore Ona dantza tal-
 dearen emanaldia.
 12,30etan 'bonba japo-
 nesak' umeentzako opa-
 riek. 1etan eskuz bina-
 kako pilota partidua:
 Lujanbio-Apezetxea,
 Berraondo-Galartzaren

kontra. 6etan zezenak.
 8etan Nafarroako trikiti-
 xa txapelketaren kanpo-
 raketa. 10etan presoen
 aldeko afari herrikoa.
 12etan dantzaldia KOX-
 KA taldearekin. 1etan pre-
 soen aldeko kalejira.



Goizuetako Udalak
 festa onak opa dizkizue
 Goizuetar eta bisitari guziei

HVIZI JATETXEA

Ongi pasa festetan!

Kale Nagusia, Tfnoa: 51 40 39 - GOIZUETA

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
 Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
 edozein herritara trasladoak
 Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
 Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

Abuztuak 16, ostirala
12etan eskuz binakako bi pilota partidu: Goizueta-Navarro, Arozena-Berrotaren kontra eta Artola-Goñi, Apezetxea-Almandozen kontra. **6etan** zezenak. **8etan** bertsolari txapeldunen saioa: Andoni Egaña (Euskal Herria), Kexux Arzallus (Nafarroa-Iparaldea), Aitor Mendiluze (Gipuzkoa) eta Unai Iturriaga (Bizkaia-Arabako). **11etan** kontzertu erraldoia: Gari, Deabruak Teilatuetan, Txakun eta Exkixu. Antolatzailea: Senideak. Laguntzailea: Udala. **Gaueko 1etan** dantzaldia IZADI taldearekin.



Abuztuak 17, larunbata
7etan diana. **8etan** entzierroa. **10,30etan** Basantz elkarrekin antolatzen duen Plater Tiraketa herrikoentzat. **12etan** eskuz binakako bi partidu: Olaizola II-Barriola, Saralegi-Sukiaren kontra eta Haritz-De Luz, Yaniz-Okiñenaren kontra.

4,30etan plater tiraketa probintziala Basantz elkarrekin antolatua. **6etan** zezenak. **8etan** Erramun Martikorena abeslariaren emanaldia. **12etan** dantzaldia LEGAZPI taldearekin.

Goiko argazkian, txarangarekin batera Ganddegitarak, Jexux Mari Txoperena, Juaniko Konejerakoa... Txarangaren doinuei adi egon behar zen orduan ere, eskobaren kirtena probatu nahi ez bazen. Argazki honek ere 30 urtetik gora ditu. Behekoan ere Auxtin azaltzen da erdian, azgazkiaren ezker aldean Txamoraberriko Xilberio eta eskuinaldean Artzango Patxi.



EKIPAL

LANTEGIA, ALMAZENA eta ERAKUSKETA:

Bekolanda auzoa • ☎ 514225 • Faxe: 514271 • GOIZUETA

Komertziorako moble fabrika

Kalitate eta prezioaren arteko orekarik onena

Edozein klasetako komertzioa duzula, ekipatzeko behar dituzun moble guzti guztiak guk fabrikatuko dizkizugu



Ezkerraldean, Sarrango Anttoniko, Joxe Konejera, Roxario zena, Alduntzinbordako Auxtin eta Ganddegiko Austin zutik. Olatxoko Doroteo makurtuta festeiako irudi klasiko batean.

Herrian oso jende gutxi jakingo du Ganddegiko Auxtinek gaztetan bonbardinoa jotzen zuela txarangan.

ARGAZKIAK:
GANDDEGIko
Agustinek utziak

Abuztuak 18, igandea
12etan gazteen arteko eskuz binakako pilota partidua eta ondoren Goizuetan eta Aranoko ordezkarien artekoa. **3etan** Umore Ona peñakoen bazkaria. **5ak aldera**, Umore Ona

peña bere txarangarekin kalez kale ibiliko da herrian zehar. Kalejira berezi hau bukatutakoan zezanak. Ondoren dantzaldia JOSELU ANAYAK taldearekin. **12etan** dantzaldia JOSELU ANAYAK

taldearekin

Abuztuak 19, astelehena
Bakailu jate eguna
12etatik 2etara eta **4etatik 6etara**, 'Pista Libre' haurrentzako ikuskizuna: Gaztelu puzgarriak, karts,

zezen mekanikoa, eta-bar... **7etan** toka txapelketa Umore Onak antolatua. **8etan** dantzaldia Maixa eta Ixiaren taldearekin. Ondoren, Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsolarien saioa. **10etan**

Umore Onak antolatzen duen bakailu-jate herrikoia aipatutako bi bertsolariekin. **12etan** festei bukaera emanez, Maixa eta Ixiarren taldearekin dantzaldia.

UMORE ONA ELKARTEA

Festa ederrak pasa!!

GOIZUETA

GYRE TXOKO TABERNA

Festa on batzuk pasa

Herriko Plaza, Tfnoa: 514097 - GOIZUETA

ZABALETA TABERNA

Ongi pasa herriko festak

Nagusia 42 • ☎ 514063 • GOIZUETA

GOIZ ARGI TABERNA

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu

Tfnoa: 51 40 61 - GOIZUETA

Asteazkena 14:

8etan txupinazoa. **12etan** XII. mus herrikoia. Ondoren dantzaldia.

Osteguna 15:

11etan Meza Nagusia, udal korporazioa bertan izango delarik herriko dantzariekin batera. Ondoren hamaitetakoia Herriko Etxean. **1etan** pilota partidua: Esain-Iparagirre, Otaegi-Galarzaren kontra. **7etan** aizkora apostua: Jaunarena-Etxeberria, Senosiain-Patxi Mindegiaren kontra. **8etan** dantzaldia ZIRIKA taldearekin. Gauetik goizaldera dantzaldia.

Ostirala 16:

Haurren Eguna

11etan herriko gaztetxo-arten pilota partidua. **12etan** mus txapelketa finala. Goiz eta arratsaldez umeentzat jokuak: karts, gaztelu haizatuak... **4,30etan** plater tiraketa. **7etan** herriko dantzariak eta txokolatada. Arratsaldez eta gauetz JOXELU ANAIK taldea.

Larunbata 17:

Jubilatuen Eguna

11etan Meza Nagusia. Ondoren, Agirre eta Liza-so bertsolariak. **2etan** herri bazkaria. Ondoren, bertsolarien bigarren saioa. **7etan** aizkora apustua: Arrospide-Mindegia, Larretxea-Olasagastiren kontra. Arratsalde eta gauetz JOXELU ANAIK.



Igandea 18:

10etan IV. mendi bizikleta ibilaldia (Antolatzailea: Larrea elkarte). **6etan** errekortadoreak. Arratsaldez eta gauetz ZIRIKA taldea. Pesta egun guzietan zenezak izango dira goizez.

Argazki nagusia 1920ko abenduan ateria da nesken eskolan. Eskuinaldean, neska gazte kuadrila ageri da urte batzuk beranduago. Tartean, bizikleta karrera eta dantza saio modernoagoak.

Argazkiak: Puri Pellejero, Karmen Zabaleta eta M.A. Gereñok utziak



koxkonta



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESAKA

XATURETXEA



JATETXEA

Tfnoa: 63 70 27 LESAKA



ZALAIN
JATETXEA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa
63 11 06
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

Larunbata 7:
Gaueko 10,30etan EX-KIXU. **11,30etan** dantzaldia ZANPA taldearekin. Gau guzian, txaranga karrien animatzeko.



Igandea 8:
10etan Meza Nagusia Urruñarrak klikarekin eta Sarako kantariekin (Guduan hil diren herriko semeentzat). Karriketan Tanborrada Marinela. **10,30etan** Luzean errebotea. **12etan** aperitifa musikarekin. **4etan** aha-te jokia. **5etan** herri kirolak: aizkolariak, orga jokia, sokatira. Hazpameko joaldunak eta gaiteroak animatzaile. **7etan** aperitifa trikitilariarekin. Dantzaldia IZEN GABEAK taldearekin. **12etan** suzko zezena.

Astelehena 9:
 Goizeko agurra gaitero eta txistulariekin. **10,30etan** Luzean errebotea. **1etan** polikiroldegian zikiro-jatea Olhain ikastolak antolatua. **5,30etan** Plazan dantzak. Esku huskako partida Trinketean. **6,30etan** Makilari eta Fandango Xapelgoa. **8etan** aperiti-

fa XAFREkin. **9,30etan** karrikan itzulini-itzuli Klikarekin. Dantzaldia SUSTRAIA taldearekin.

Asteartea 10:
 Goizeko Agurra gaitero eta txistulariekin. **10,30etan** Luzean errebotea. **5,30etan** Joko Garbi. **7etan** Mutxikoak. **8etan** aperitifa trikitilariarekin. **10,30etan** karrikan itzulini itzuli Ezpeletako txaranga. **11etan** suzko zezena. Dantzaldia JOXELU ANAIK taldearekin.

Asteazkena 11:
 Goizeko Agurra gaitero eta txistulariekin. **9etan** trinketeko zabaldian, Sarako Azienda Primak. **5etan** Plazan esku huskako pilota partida. Segidan zozketa. **6etan** Trinketean esku huska. Bertsulari eta irrintzinariek alaituko dute. **9,30etan** itzulini-itzuli. Dantzaldia EGAN berria taldearekin. **12,30etan** suzko zezena.



Klika, txaranga eta musika taldeen doinuak, dantzarien saioak eta besta zaleen umorea. Denetik izanen da aurten ere Sarako bestetan.



Irungo errepidea - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlazak
Orma antzinak	Moldurak
Leiboak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrakziak
Pilareak	

'Abujardadea' Maiztoa
 Zahar antzerkoa Tsapastua

**ZINTARRIAK
 ADOKINAK
 ZOLAK**



ROMANO dekorazioak
**PINTURA ETA PAPEREZTATZE LAN
 GUZTIAK EGITEN DITUGU**

- Zolak jartzen ditugu:
 - Kortxoak
 - Moketak
 - Parketa
 - Sintasola
- Gure kolokazio tailerra daukagu
- Komertzioen errotulazioa

*Aurrekontuak
 konpromezurik
 gabe*

Legia I • Tel. 631137-630941 • **BERA**

**BOTXO
 ostatua**

Tfnoa: 63 00 52
 Zalain Auzoa, BERA

**NARBARTEKO
 HERRIKO
 OSTATUA**

MENUAK eta KARTA

*Besta zoriontsuak
 opa dizkizuegu*

San Andres 1
 Tfnoa: 592519
 NARBARTE

Ortzeguna 22

12etan besta hasierako txupinazoa botako da. 3etan herriko gazteak etxez etxe ibiliko dira. 9etan herriko jatetxeetan zopak eta txuritabeltzak emanen dira. 12etatik aitzinera dantzaldia JOXE ANGELEN eskutik.

Ortzirala 23:

San Felipe Eguna

11etan Meza Nagusia San Feliperen ohorez. Agintariak ere bertan izanen dira. Arratsaldez eta gauz dantzaldia HARITZA taldearekin.

Larunbata 24:

Haurren Eguna

11etan haur jokoak. Arratsaldeko 4etatik 8etara haur jokoak: gaztelu puzgarriak, moto tikiak, bizikleta amerikarrak, igel jokoa... 5etan txokolatada. 12,30etatik aitzinera gaupasa AKELARRE orkestarekin.



Herriko gazteak zikiro jatean, 1975ko bestetan ateratako erretratoan

Argazkiak: Esther Arretxeak utziak

5etan txokolatada. 12,30etatik aitzinera gaupasa AKELARRE orkestarekin.

Igandea 25: 11etan txirrundulari laisterketa. Arratsaldez eta gauz dantzaldia TRIKI-

MAILU taldearekin. **Astelehena 26:** 2etan zikiro-jatea. Arratsaldez eta gauz

dantzaldia MODESTOekin. Azkenik, 'Pobre de mi' beste akabera eman ez.



1977ko San Felipe egunean egindako apostua: zaldi baten kontra aritu ziren herriko gazteak eta hauek irabazi zuten. Eskuineko erretratoa oraindik zaharragoa da, 1940. urte ingurukoa. Narbarteko frontoian Leontxo Arretxea eta Josetxo Ezkurra, Irigoien eta Larralderen kontra aritu ziren eskuz. Fermin Oteiza alkatea eta Leopoldo Tena idazkaria ere ageri dira.



BERTIZKO TURISMO PARTZUERGOKO MERKATARIEN ELKARTEA

Aurtengo neguan Cancun (Mexikon) patxada ederrean, hondartza batean zaudela imagina dezakezu?

Ametsak alde batera utzi gabe eta zure herriko dendan erosketak egiteagatik zure ametsa errealitatea bihur daiteke

Bi asteko bidai bikoitza, **** hotelean. Bidaiak 1996-11-30 baino lehenago izanen da. Zozketa 1996ko irailaren 12an egingen da



duten dendetan konfida ezazu!

ETXEBIZITZAK

ZUBIETA. Borda salgai. Prezio negoziagarria. ☎ 234830.

ITUREN. Borda salgai 3.000 m²ko eremuarekin. Bide ona. ☎ 234830.

BARAIBAR. Baserría salgai, 2.500 m²ko lur eremuarekin. Prezioa negoziagarri. ☎ 451518.

Berako neska batek lagun bat behar du Iruñean pisua osatzeko. ☎ 630694. Beatriz eguerditan.

BARAÑAIN. Neska bat behar da pisua osatzeko. ☎ 637447.

BERA. Pisua salgai. ☎ 451841.

BERA. Pisua salgai Altzate karrika ondoan. ☎ 630760.

DENETARIK

Eskopeta superpuesta salgai, 4 txokerekin, arras moderno eta egoera onean. ☎ 637872.

Franchi eskopeta salgai, gasezkoa. Oso zorrotza eta

egoera onean. ☎ 637872. **Iruñean** neska bat behar da pisua osatzeko irailetik aurrera. Gela konpartitua. Langilea bada hobe. ☎ 631442 edo 615054.

Elizondon pisu konpartituko bateko gela bat alokatuko nuke irailetik aurrera. ☎ 510071 (gauetan, Izaskun).

DONEZTEBE. 90 m²ko bajera alokairuan emanen nuke, bortz urterako (luza-garria). Prestatua. 30.000 Pta hilean. ☎ 234830.

BERA. 60 m²ko bajera salgai, ura eta argiarekin Burgi Plazan. ☎ 631137-630941.

DONEZTEBE. 80 m²ko ba-

jera salgai, 100 m²ko baratzearekin. ☎ 234830.

ETBko 'Txiskola' saioan ateratzeko nafarrak behar dira. Izenak abuztuan eman behar dira, irailetik aurrera grabatzen haste-ko. ☎ 943-217543 edo 219322 (Leire).

Kolore argiko bi ateko armarioa eta bere gau-mahaitxoak, berri-berriak, 25.000 pezeta ingurutan salduko nituzke. ☎ 631338.

Argazki makina ttiki bat, uztailaren 20an Leurtzako urtegi inguruetan galdu dugu. ☎ 637462 (eguerdi edo gauetan).

AZIENDAK

Dogo alemandar arrazako zakurrak salgai. Urdinak. Pedigree ezin hobe, lehiaketarako zakurrak. ☎ 630381 (Bera).

Mendiko hiru behi salgai, beraien txekorrek. ☎ 510167.

Txakurkume bat erregalatu nuke Leitzan. Hila-

betekoa, gorria. Ama arratoi txakurra eta aita ardi txakurra. ☎ 397039.

Ardi zakur bat erosiko nuke, 6 edo 7 hilabetekoa. ☎ 387091.

Bi arratoi zakurkume erregalatu nitzuke. ☎ 610686. Leitza.

IBILGAILUAK

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Suzukiak: luzea eta laburra, Land Rover Liger, Laburra eta Luzea, Ford Escort eta Opel Corsa. Tapizeriak garbitzen ditugu.

Rieju MR80 motoa salgai, egoera onean. ☎ 635196.

Renault 4 16 salgai, NAPP matrikuladuna, egoera onean. ITV pasa berria. ☎ 393180 (Betatik 10etara).

AUTOI SAMPI ARAGON

Bi Mitsubishi labur, luze bat 7 plazakoa, Toyota luzea eta Niva bat salgai, egoera ezin hobean..

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

LANA

Neska batek etxeko lanak egin edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 637749. Gaez..

Haurrak zaintzeko emakume euskaldun eta esperientzia duen baten bila gabilta. ☎ 631185.

AGURRAK

Zorionak Elizondoko Marian Mendibururi eta Amairuko E. Mujikari, uztailaren 28 eta 24an 14 urte bete zituztelako. Amairuko Ana Belen.


JATETXEA
LA VILLA
 Abuztu osoan, eguerdi eta arratsetan irekita dugu egunero
 ☎ 637290
 Herriko Etxea
 IGANTZI

ttipi-ttapa
Gida Komertziala 96

 Elektrizista baten bila zabilta? Gida honetan topatuko dituzu inguruko guztien telefonoak.

SAROBÉ
okindegia 
SANDERS Pentsuak
 Eztegará 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

GRUPO  **ZURICH**
ASEGURO OROKORRAK
 Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63


APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
DONEZTEBE

ETXANDI
TXOKO
erretegia
Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
 Tfnoa: 45 04 91

NOLANAHI BEGIRATUTA, RENAULT IZANEN DA



Renault Express %15a bitarteko deskontua

55 CVko potentzia, 5 abiadura; 5 eserleku kristalezatu, sabai irekigarria; argiak baretik erregulatzeko mekanismoa; atzeko aulkia tolesgarria eta kargalekuko zola estalia.

RENAULT EXPRESS **1.340.000***
PIA. (BEZ barne)



Renault Trafic Combi 6. %25eko bitarteko deskontua

Baina prezioan bakarrik! Eraman ezazu Renault Combi 6a %25eko deskontuarekin eta ekipamendurik hoberenarekin: 6 eserleku kristalezatu, lagunduriko direkzioa, kanpoan angelu handiko atzeranzko ispiluak, atzeko ateak 180°-tan zabalgarriak eta 90°-tan atzekigarriak, gidariaren eserlekua hirudimentsiotan erregulagarria eta bizkarralde makurgarria...

RENAULT TRAFIC
BIZITZA OSORAKO **1.899.000****
PIA. (BEZ barne)

*Ekipamendua aukeratu ondoren. Prezioa Renault Express Ri 1,2 55 cv, Sonda bolagario, BEZ, garrantzia eta promozioa barne. Hileko hitzartze orke sodekoen dardien bitartekotako botolagaria. Ezin izanen zara berzte promozioari gaitu.

**Prezioa Renault Trafic 900 Combi 6a bolagario, BEZ, garrantzia eta promozioa barne. Hileko hitzartze orke sodekoen dardien bitartekotako botolagaria. Ezin izanen zara berzte promozioari gaitu.

PEDRO GARMENDIA, S.A.
Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 ELIZONDO

TALLERES SANTESTEBAN
Leitzako Errep., 1 kma - Tfnoa. 45 02 82 DONEZTEBE

SEMPER HNOS., S.L.
Irun - Iruña Errep. - Tfnoa. 63 06 21 BERA



SAMPI ARAGON



Golf



Caddy

25 urte zuen zerbitzura

TXAPA eta PINTURA
MEKANIKA

ELEKTRIZIDADEA
GARBITZAILE AUTOMATIKOAK


Grua zerbitzua 24 ordutan

Leitzako errepidea • © 450354 / 450759 • DONEZTEBE

ETXALARKO IV. MOUNTAIN BIKE IBILALDIA



ABUZTUAREN 10ean, ARRATSALDEKO 5etan



**ISTRIPURIK GERTATZEN BALDIN
BADA ANTOLATZAILEEK EZ DUTE
BERE GAIN HARTUKO**

Antolatzailea: ALTXATA Laguntzaileak: ETXALARKO UDALA, ALTXATA